



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko maiatzaren 31

44. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, NA-411 eta NA-4100 errepedetako bidegurutzeko seinale horizontalei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Artaxoako “Electra” Bazkalekuen Elkarteari emandako dirulaguntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Leitzako Arkixkil belar artifizialeko futbol zelaiko obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Tafallako eguneko zentroaren eraikuntzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Leitzako Udalari Erleta eskolan igogailu bat jartzeko dirulaguntza ukatzeko izandako arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Itsaso Martínez Trincado ikaslearentzako garraio-zerbitzua dela-eta Nafarroako Arartekoak emandako urriaren 13ko 178/2010 Ebazpenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, azkeneko hiru urteetan oinarritzko errenta jaso duten etxegabeen kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Foruzaingoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, organo kolegiatuen inbentario orokorra egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Erronkari Jatorrizko Deituraren baldintza-orriaren aldaketa zertan den jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, larrialdietako probak egin ondoren gaixoak ospitaleko gelara eramateko prozeduran gertatzen diren atzerapenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Ikerketa Institutuari eta Ikerketa Biomedikorako Plan Estrategikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Tratamendu kroniko garestiek eragindako gastuak kitatzerakoan baliatutako prozedurari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Mendillorriko Bigarren Hezkuntzako Institutuari atxikitako ikasleen eskolatzearen gaineko aurreikuspeni buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidearen Artaxoako zatiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

- Galdera, Galar Zendeako udal dermioan ehiza barruti bat egoteko baimenik ez ematearen arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Liztor asiarra (vespa vetulina) detektatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Segurtasunaren Hirirako aurrekontuei buruzkoa eta aurrekontu horietatik betetakoari eta gastatutakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Segurtasunaren Hirirako lurren erreserbari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Berriozarko Artiberri II auzunean bizi diren pertsonak zer osasun etxeri atxikiko zaizkion jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Leitzako osasun etxean Leitzaldeko hirugarren adinekoentzako geriatría zerbitzua jartzeko asmorik baden jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, EMPTY enpresarekiko betebeharrak ekonomikoek edo hari ordaindu beharreko kalte-ordainei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Biogasa dela-eta Nafarroako Foru Komunitatean dauden proiektuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Nekazaritza Politika Bateratu berriaren dokumentuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Tuterako Reina Sofia Ospitaleko Dermatologia Zerbitzuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Kultura eta Turismo Departamentuan martxoaren 31 eta gero egin diren deialdiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, Jakiteko “Kultur Turismoari buruzko Plan Zuzendaria. Elizak eta monumentuak irekitzeko programa” kontusaila zein ekintzatarako erabili den. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, 2009ko uholdeek ukitutako Bidasoako arroko udalerrietan aitortutako kalteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak aurreikusia duen Aezkoa ibarrean, Abodiko ipar eskiko pistekin, egitea Erronkarin Territorio Roncalia, S.L. sozietate publikoak deitutakoak egindakoaren antzeko zerbituak. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden 35 urtetik beherako gazteen kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, N-121-A errepideko zenbait tartetan istripu gehiago ez gertatzeko hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, abeltzainei esnearengatik ordaintzen zaien prezioak esne-ustategiak bideragarri egin ditzan Nafarroako Gobernuak bultzatutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- Galdera, Nafarroako epaitegien Iruñeko eraikina handitzeko obren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- Galdera, 2011ko aurrekontuetako “Lurzoruaren Foru Bankuaren Salmenta” izeneko kontusailarekin zehazki hartuko diren neurriei eta eginen diren ekimen edo salmentei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Galdera, menpekotasunen bat duten pertsonentzako arreta-zerbitzua finantzatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- Galdera, Noaingo aireportuan “low cost” hegaldiak egoteko Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (40. or.).
- Galdera, energia-azpiegiturei eta azpiegitura horiek ingurumenean duten eraginari dagokienez eta, zehazki, 400 kV-ko eta 220 kV-ko goi tentsioko lineek Foru Komunitatean duten ingurumen-eraginari dagokienez Nafarroako Gobernuak darabilen politikari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).
- Galdera, hondakinen arloko Nafarroako politika orokorrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (41. or.).
- Galdera, mendien antolamenduari, garapenari eta babesari dagokienez, Natura 2000 Sareko eremuei dagokienez eta BILEi dagokienez Nafarroak darabilen politika orokorrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (42. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, NA-411 eta NA-4100 errepedeetako bidegurutzeko seinale horizontalari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du NA-411 eta NA-4100 errepedeetako bidegurutzeko seinale horizontalari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko azaroaren 12ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko abenduaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du NA-411 (A-15-Ostiz) eta NA-4100 (Aizoain-Lizaso) errepedeetako bidegurutzeko seinale horizontalari eta bertikalei buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Bidegurutze horretako seinale horizontalak eta bertikalak jartzeko aintzat hartu den irizpideak ez du kontuan izan gune horretan gurutzatzen diren bi errepedeen sailkapen-maila; aldiz, lehentasuna eman zaio bidegurutzearen geometriari, gune

horretan bide-segurtasuna ziurtatze aldera. Eta geometria horri dagokionez, seinale horizontalak eta bertikalak egokiak direla uste dugu.

Oso bidegurutze handia da eta soilik seinale horizontalen bidez zehaztuta dago –alboetako lerroak eta zebreatua–, eta horrek ikuspena oztopa dezake zenbait egoeratan (euria eta abar). Hori dela eta, aurreikusi da, heldu den abenduan egiten diren zainketa integraleko lanen barruan, zintarri beheratuak jartzea eta babesgune fisikoak sortzea, aipatu bidegurutzea modu egokiagoan zehazteko, eta zintarriak horiz eta beltzez margo-tzea, hobeto identifikatze aldera. Hala ere, gaur egun ezarrita dauden bide-lehentasunak ez dira aldatuko, uste baitugu egokiak direla gune horren geometria kontuan hartuta.

Dena den, esan behar dut istripuei buruz ditugun datu baseetan ez dela agertzen, oraingoz, bidegurutze horretan gertatutako istripurik.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko azaroaren 30ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazioko kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Artaxoako “Electra” Bazkalekuen Elkarteari emandako dirulaguntzari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Artaxoako “Electra” Bazkalekuen Elkarteari emandako dirulaguntzari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko azaroaren 19ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko abenduaren 2an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Artaxoako “Electra” Bazkalekuen Elkarteari emandako dirulaguntzari buruz (PES-670). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Galdera parlamentarioak hizpide hartu dituen lur-sailak ez dira herrilurrak, baizik eta Artaxoako “Electra” Bazkalekuen Elkartearen jabetzapekoak.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko hamargarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen erakunde tradizionaletako bat izateagatik eta, beraz, Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legeko 71.2.2.d) artikuluan ezarritakoa aplikatzeko izateagatik, Artaxoako “Electra” Bazkalekuen Elkartearen lur-sailetan ureztaketa-instalazioak instalatzeko interes orokorreko obretan eginiko inbertsioen finantzaketari ematen zaion tratamendua da toki-entitate baten herrilurretakoak diren lur-sailetan eginikoei emandako berbera.

Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legeak, 1/2002 Foru Legea garatzeko erregelamendua onesten duen martxoaren 24ko 59/2003 Foru Dekretuak eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren 2003ko maiatzaren 28ko Foru Aginduak arautu egiten dituzte presioko sareen bidezko barnebanaketan eginiko inbertsioetarako finantzaketa eta laguntzak, herrilurretako lur-sailetan edo horiei parekatuetan eginikoetan, ureztaketaren eraldaketa edo hobekuntzarako nekazaritza-azpiegituretako jarduketaren eremuetan.

Legedi horri jarraiturik, Nafarroako Gobernuak, 2009ko abenduaren 1eko Erabaki bidez, baimena eman zion Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari 360.339,21 euroko gastu-konpromisoa hartzeko, Artaxoako “Electra” Bazkalekuen Elkartearen lur-sailetan banaketa egiteko sarearen proiektuaren obrak finantzatze aldera 2010erako gastu-aurrekontuaren kargura, eta, urtarrilaren 7ko 1/2010 Foru Aginduaren bitartez, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak onetsi egin zuen Nafarroako Ubideko eremu ureztagarriko II-2 sektorean sarturiko Artaxoako “Electra” Bazkalekuen Elkartearen lur-sailetakoa ureztaketa-sarearen proiektua, obren egitea Riegos de Navarra, S.A. ente instrumentalari enkargatu zion, eta 359.785,36 euroko gastua baimendu zuen.

Gaur egun obrak egiten ari dira. 2010eko azaroaren 19rako, 637.813,56 euroko zenbatekoa egiten duen obra egin da, eta horren frogagarri, hiru obra-ziurtapen egin dira. Zenbateko horretatik, Nafarroako Gobernuak erdia ordaindu du; hau da, 318.906,78 euro. Beste erdia Artaxoako “Electra” Bazkalekuen Elkarteak ordaindu du.

360.339 euroko zenbatekoak ez dauka zerikusirik Artaxoako Udalaren herrilurretako lur-sailekin. Artaxoako Udalak 2010eko apirilean eskatu zuen bere herrilurretako lur-sailetan ureztaketa-ekipamendurako obrak egitea. Alabaina, eta udalaren interesagatik beragatik, obren egitea geroratu egin da, udalaren ahalmen ekonomikoak hobera egitearen zain.

Erantzun honi Artaxoako “Electra” Bazkalekuen Elkartearen estatutuen kopia erantsi zaio, bai eta 2010eko urtarrilaren 31n onetsitako azken aldaketarena ere.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko abenduaren 2an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Ágora Parlamentu kudeaketarako tresnan).

Galdera, Leitzako Arkixkil belar artifizialeko futbol zelaiko obrei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Leitzako Arkixkil belar artifizialeko futbol zelaiko obrei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko azaroaren 8ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Leitzako Arkixkil belar artifizialeko futbol zelaiko obrekin lotutako zenbait gairi buruz (PES 656-10). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren uztailaren 2ko 21/2010 Foru Aginduaren bidez onetsi zen “Nafarroako kirol azpiegiturak hobetzeko inbertsio plana”.

Plan horretan ezarri zen Nafarroa Atlantikoan, Leitzan, beharrezkoa zela futboleko aritzeko kirol eremu bat, eta futbol zelaia belar artifizialeko zelai bihur zitekeela.

Plan horrekin bat, Leitzako Udalak planeko jarduketak guztiak zehazten dituzten baldintzak bete beharko ditu, planean aurreikusitako jarduketak dituzten gainontzeko toki entitateek bezala. Hala ere, proiektu hori egiteko interesa eta borondatea adierazi beharko du, eta parte hartu beharko du Departamentu honek onetsi behar duen laguntza publikoen deialdian, zeina planean ezarritako baldintzekin bat egiten baita.

Iruñean, 2010eko azaroaren 25ean.

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Tafallako eguneko zentroaren eraikuntzari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Tafallako eguneko zentroaren eraikuntzari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko azaroaren 8ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Tafallako zentroari buruz (PES 664/10). Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariaren erantzuna:

Acedo andreak ondoko galdera egin du:

1. Eguneko Zentroa deiturikoaren obra esleiturik dago, eta bere garaian hasi ere egin zen herriko alde zaharrean. Obra ez egitea erabaki al da?

Antza denez, Acedo andrea Tafallako Gizarte Zerbitzuen Zentroari eta Gaixotasun Mentala duten pertsonentzako Okupazio Zentroari buruz ari da bere galderan, zeinaren obrak esleiturik eta hasirik baitaude.

Erantzuna da ez dela behin ere erabaki obra ez egitea; aitzitik, obra hori egiteko zailtasun tekniko eta topografikoak ikusita, Departamentuak balibide horretarako lurzati aproposago bat bilatzeko aukera aztertu du.

Hartara, proposamen bat egin zaio Tafallako Udalari, aukerako kokalekuak bilatzeko xedearekin. Obra hori Tafallako hiltzeak behinola hartzen zuten lurzatian egiteko aukera jarri du mahaigaine-

an Tafallako Udalak, baldin eta juridikoki eta hiri-gintzaren ikuspuntutik bideragarria bada. Halere, auzia erabaki gabe dago oraindik, Udalak egin beharreko txostenak eta hartu beharreko erabakiak falta direlako.

Hori posiblea ez baldin bada, Departamentuak hasierako asmoari eutsiko dio; alegia, obra lurzati horretan eginen da.

Galderan egindako gainontzeko galerak erantzuterik ez dago, horiei erantzuteko beharrezkoa baitzen lehenengoari baietz erantzutea.

Iruñean, 2010eko azaroaren 25ean.

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Leitzako Udalarari Erleta eskolan igogailu bat jartzeko dirulaguntza ukatzeko izandako arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Leitzako Udalarari Erleta eskolan igogailu bat jartzeko dirulaguntza ukatzeko izandako arrazoiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko azaroaren 12ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Leitzako Udalarari Erleta eskolan igogailu bat jartzeko dirulaguntza ukatzeko izandako arrazoiei buruz (PES666). Hona hemen Nafarroako Gobernuko eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako eta Hezkuntza kontseilariaren erantzuna: H a u r Hezkuntzaren 2. zikloko, Lehen Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza-DBH) ikastetxe publikoak eta Udalen Musika Eskolak hobetzeko, zabaltzeko eta birmoldatzeko obra proiektuak burutzeko Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuentzat laguntzak emateko deialdiaren oinarrietan, ondokoa ezartzen da:

”7. Lehentasun-ordena

Deialdia lehentasun-ordena honi jarraituz ebatziko da:

a. Ikastetxearen eguneroko funtzionamendu egokia bermatzeko nahitaezko instalazioak izatea-

gatik presako eta nahitaezko esku-hartzea eskatzen duten obra proiektuak.

b. Energia aurrezteko eta energia-efizientzia hobetzeko jarduketak, eraikinaren ingurutzailan (estalkiak, fatxadak, kanpoko arotzeria) eta instalazioetan (berokuntza eta argiztapena).

c. Esparruak eta instalazioak segurtasun arloan indarra duen arategiari egokitzeko obren proiektuak (suteen aurkako babesa eta detekzioa, oztopo arkitektonikoak kentzea, ebakuazioa eta abar), lehenbailehen egin beharrekoak eta ikastetxearen titularra den toki entitateak bere gain ezin har ditzakeenak, entitatearen egoera ekonomikorako inbertsio handiegia delako edo ohiz kanpoko beste edozein gorabehera, Ebaluazio Batzordeak baloratuko duena, gertatu delako.”

Leitzako Udalaren eskaera ez da kontuan hartua izan 2010eko ekitaldi ekonomikoko dirulaguntzen deialdian; izan ere, obrak oinarrien 7.c) atalean sartuko lirakeke, eta kontusaila agortu egin zen 7.a) eta 7.b) ataletan sartzen ziren eskaerei erantzun izanaren ondorioz.

Igogailua jartzeko dirua 2010ean bakarrik eskatu da, eta, horrenbestez, zerbitzu honetan ez dago jasota udalak Erleta eskolan igogailua jartzeko dirulaguntza eskatu duenik aurreko lau urteetan.

Hala ere, Leitzako Udalarari proposatu zaio hitzarmen bat egitea, Erleta eskolako igogailua finantzatzeko.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua betez.

Iruñean, 2010eko abenduan

Hezkuntza kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Itsaso Martínez Trincado ikaslearentzako garraio-zerbitzua dela-eta Nafarroako Arartekoak emandako urriaren 13ko 178/2010 Ebazpenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du Itsaso Martínez Trincado ikaslearentzako garraio-zerbitzua dela-eta Nafarroako Arartekoak emandako urriaren 13ko 178/2010 Ebazpenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko azaroaren 8ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko abenduaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Luisa Mangado Cortés andreak galdera egin du, idatziz erantzutekoa, Larraitz Trincado andreak eta Patxi Martínez jaunak beren alaba Andrés Muñoz hezkuntza bereziko ikastetxera garraiatzeko zerbitzua ematearen gainean Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuari aurkezturiko idazkiari buruz (PES-653). Hona hemen Nafarroako Gobernuko eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako eta Hezkuntza kontseilariaren erantzuna, Dibertsitatearen, Orientazioaren eta Kultura-aniztasunaren Zerbitzuak kontseilari honi helarazitako txostenaren arabera:

Hezkuntza-administrazioei dagokie ziurtatzea ikastetxeek erantzunik aproposena ematea ikasle bakoitzari, printzipio gidari harturik, besteak beste, normalizazioa, integrazioa eta barne-hartzea, diskriminaziorik eza eta ekitatea. Hezkuntza kontseilariaren ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduak, Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan aniztasunari nola erantzun arautzen duenak, ezgaitasunen bat duten ikasleentzako antolaketa-neurriak ezartzen ditu.

Hezkuntza Departamentuak hezkuntza-alorreko erantzuna planifikatu eta antolatzen du erkidego osoko ikasleentzat, eta erantzunik aproposena bermatu behar du ikasle guztientzat eta, bereziki, hezkuntza-premia bereziak dituztenentzat, bizileku duten herriaren ingurune hurbilean.

Ikasle baten eskolatzea hezkuntza bereziko ikastetxe batean egitea proposatzen denean eta ikaslearen bizitokia hezkuntza bereziko ikastetxeetatik urrun dagoenean, ikastetxe arruntetan ikasgela alternatiboak eratzten dira, hezkuntza bereziko ikastetxeetako ikasgelen antolaketa- eta curriculum-egitura bera daukatenak.

Azken ikasturteetan zehar, hezkuntza-plangintzak familien eskaera gero eta handiagoari erantzun dio hezkuntza-eskaintza landa-ingurunean ziurtatzeko ahalegina eginez. Lizarrako eskualdeko ikasleen eskolatzeko-premiei erantzuteko, hezkuntza bereziko ikastetxe baten ikasgela alternatiboa eratu zen Lizarrako Remontival ikastetxean. Aurtengo ikasturtera arte, premiak identifikatuta zeuden G ereduan (gaztelania) eta A ereduan (euskara, ikasgai gisa) eskolatutako ikasleengan.

2009-10 ikasturtean, Hezkuntza Departamentuko zerbitzu teknikoek proposatu zuten Itxasok ikastetxe berezi batean jarrai zitzala ikasketak, zeren eta, bere berezitasunengatik, ikastetxe arrunt batean ezin baitzuen bilakaera egokirik izan.

Irizpide tekniko horri jarraituz, hasiera batean leku-aldatze horren aurkako jarrera egon bazen ere, ikasle hori hezkuntza bereziko "Andrés Muñoz" ikastetxean matrikulatu zuten, D ereduko ikasgela bat zeukan ikasgela bakarra zelako; hori zela-eta, Foru Komunitateko Administrazioak bere gain hartu zuen garraio-zerbitzua, zeina taxi bidez eta zaindari batekin egin baitzen.

2010-11 ikasturterako, indartu egin da Lizarrako Remontival ikastetxeko ikasgela alternatiboa, eta D ereduko ikasleei erantzuna emanen die, horretarako euskarazko hizkuntza eskakizunak betetzen dituzten pedagogia terapeutikoko irakasle eta begiraleak hartuz.

Plangintza horren barrenean kokatzen da Itxasoren gurasoei eginiko ikastetxe-aldaketako proposamena, haurarentzat gomendagarriena zelakoan, eta Arartekoak aitortu egiten du Remontival ikastetxe publikoan eskolatzeak berarekin ekarriko litzuzkeela Hezkuntza Departamentuak emandako txostenean adierazten diren abantailak.

Horregatik, Itsasok agertzen dituen hezkuntza-premiak kontuan harturik, bai eta, oraindik ere adin oso txikikoa izateagatik aurrerantzean hez-

kuntza-arloko ibilbide luzea duela egiteko, eta garraioa egunero erabili behar duela, berraztertu egin zen erabakia, eta ekainean familiari helarazi zitzaion Lizarrako (hots, familiaren egoitza zegoen herria) Remontival ikastetxeko ikasgela alternatiboan eskolatzeko proposamena.

Halaber, uztailaren 2an familiari txosten bat bidali zitzaion, ikastetxe-aldaketaren proposamena justifikatzeko.

Arartekoak eginiko azterlanak dioen bezala, aurtengo ikasturtean indartu egin da Lizarrako Remontival ikastetxe publikoko hezkuntza-eskaintza, halako moduz non Itsasok modua izanen lukeen bera bizi den herrian eta ikasgela alternatibo batean hartzeko bere premien eta hezkuntza-hautuaren arabera zerbitzua.

Gainera, eguneroko garraioak berezko dituen arrisku gehigarriek, pilaturiko nekeak eta, adin oso txikikoa izateagatik oraindik ere hezkuntza-arloko ibilbide luzea egiteko izateak, gomendagarri egiten dute Lizarrako Remontival ikastetxe publikoan eskolatzeko proposamenari eustea, horren emaitza orokorra positiboa izanen delako uste osoan.

Azpimarratu beharrekoa da hezkuntza-arloko erantzunaren baldintzak ez direla okertzen, baizik

eta nabarmen hobetzen direla, eguneroko garraioaren beharra desagertzearekin.

Lizarrako Remontival ikastetxeko ikasgela alternatibora moldatzeko prozesua bi aste inguruko epean gaintitu ondoren, abantailak baizik ezin dugu aurkitu Itsasoren eskolatzeko baldintzetan:

- Bukatu egin dira Iruñerako eguneroko joan-etorriak, eta horrela gutxitu egiten da ikaslearen nekea eta barreiamendu mentala.

- Ingurune normalizatu batean parte hartzen du integrazio-jardueretan, D ereduko ikasleekin.

Halaber, eta ikastetxearen hautaketa gurasoei badagokie ere, doakotasuna hezkuntza-eskaintzara baldintzatuta dago, eta Hezkuntza Departamentua ezein kasutan ez dago behartuta doako garraio antolatua bermatzera, noiz eta ikaslearen herrian badagoenean hezkuntza-eskaintza, hala-koa non hobekuntza nabarmena eragiten duen, arriskuak murriztearen eta Itsasoren hezkuntza-proiektua garatzeko baldintzen ikuspegitik.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua betez.

Iruñean, 2010eko abenduan

Hezkuntza kontseilaria: Alberto Catalán Higuerras

Galdera, azkeneko hiru urteetan oinarrizko errenta jaso duten etxegabeen kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du azkeneko hiru urteetan oinarrizko errenta jaso duten etxegabeen kopuruari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko azaroaren 12ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko abenduaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du oinarrizko errenta jasotzen duten etxerik gabeko pertsonen buruz (PES 665/10). Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Gizarte zerbitzu orokorren zorroa onesten duen ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuaren arabera, oinarrizko errenta familia unitatearen diru-sarreraren osagarria eta subsidiarioa den aldizkako laguntza ekonomiko bat da, diru-baliabiderik ez duten etxeetako oinarrizko beharrak asetzeko eta bazterketa-egoeran dauden pertsonak gizarteratzea sustatzeko.

Laguntza horren onuradunak dira, hortaz, gizartean bazterturik edo hala gertatzeko arriskuan dauden pertsonak eta zorroak berak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituztela kreditatzen dutenak.

“Etxerik gabekoen” egoera, hartara, ez da erabakigarria prestazioaren onuradun-izaera aitortze-ari begira, eta horregatik ez da nahitaez jasotzen eskabidearen oinarri den gizarte-txostenean.

Jakina, Nafarroan oinarrizko errenta jasoko dute egoera horretan egonik laguntza eskatzen dutenek eta araudian eskatutako baldintzak betetzen dituztenek.

Edonola ere, oinarrizko errentaren espediente bakoitzaren balorazio prozesuan Gizarteratze Zerbitzuak betetzen duen ebaluazio sozialean jasotzen da ea familia unitate eskatzailean etxebizitzaren arloko bazterketa adierazlerik dagoen. “Etxerik gabekoen” egoeraren gisako batean leudeke ondokoetan bizi direnak ere: txabolak, kobazuloak eta etxebizitza kolektibo babestuak (etorkinen familien gizarteratze pisuak, tratu txarren biktimei harrera egiteko etxeak eta “Aukera eman zeure buruari” izeneko programa, Cáritas-en egoitzak, Salaketaren preso ohien pisuak, “Itxaropen Gune” prostituten gizarteratze pisuak, eta abar).

Hona “etxerik gabekoen” egoeraren gisakoan egonik oinarrizko errenta jasotzen dutenen datuak, azken hiru urteotakoak:

2008. urtean: 45 hartzaile.

2009. urtean: 59 hartzaile.

2010. urtean: 39 hartzaile (2010/08/04ra bitarte).

Iruñean, 2010eko abenduaren 10ean.

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Foruzaingoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Foruzaingoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko azaroaren 12ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko abenduaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Foruzaingoaren gaineko zenbait gairi buruz (PES-667). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Foruzaingoaren langile-erregistroetan burutzen aldaketei buruz jasota ageri den informazioarekin bat –Foruzaingoaren Antolamendu eta Funtzionamendu Erregelamenduan burutza gisa definitutako lanpostuak hartuta burutzat–, eta denbora-erreferentzia gisa hartuta Parlamentuak onetsitako Nafarroako Poliziei buruzko Legearen aurka egindako mobilizazioak, eta horiekin inolako loturarik izan gabe, Barne zuzendari nagusiaren urriaren 25eko 4581/2010 Ebazpenaren bidez Parlamentu-

ko Taldeko nagusi kargutik kendu zen NIP 72 bitarteko inspektore-ordea (Instalazioak eta Atxilotuak Babesteko Brigadakoa, Barne Segurtasuneko Dibisiokoa, Barne Segurtasuneko eta Polizia Administratiboko Alorrekoa).

Kargutik kentzea Foruzaingoko buruaren proposamenari jarraikiz egin zen, bere garaian izendapena egin zen bezala, Nafarroako Foruzaingoko lanpostuak betetzeko Erregelamendua onesten duen martxoaren 25eko 57/2002 Foru Dekretuko 27. artikuluan eta Foruzaingoko Antolamendu eta Funtzionamendu Erregelamenduko 13. artikuluan xedatuarekin bat hain zuzen ere.

NIP 72 foruzaina kargutik kentzeko arrazoiei dagokienez, Nafarroako Foruzaingoko lanpostuak betetzeko Erregelamendua onesten duen martxoaren 25eko 57/2002 Foru Dekretuko 27.6 artikulua ezartzen du bitarteko izendapena onetsi zuen organo berak noiznahi baliogabetu dezakeela, eta Antolamendu eta Funtzionamendu Erregelamenduko 13. artikuluan ere beste horrenbeste xedatzen da bitarteko burutzei buruz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 186. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2010eko abenduaren 9an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, organo kolegiatuen inbentario orokorra egiteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du organo kolegiatuen inbentario orokorra egiteari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko azaroaren 19ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko abenduaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ion Erro Armendáriz jaunak galdera egin du organo kolegiatuen inbentarioari buruz (PES-671). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Organo kolegiatuen inbentario orokorra prest dago eta Nafarroako Gobernuaren atarian argitaratu da, zehazki http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Organos+colegiados/default.htm helbidean. Horra iristeko ibilbide honi jarraitu ahal zaio, adibidez: www.navarra.es/

Gobernua / Organigrama / Inventario de órganos colegiados.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta

hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2010eko abenduaren 9an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, Erronkari Jatorrizko Deituraren baldintza-orriaren aldaketa zertan den jakiteko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Erronkari Jatorrizko Deituraren baldintza-orriaren aldaketa zertan den jakiteko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko azaroaren 26ko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko abenduaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko zertan den Erronkari Jatorrizko Deituraren baldintza-agiriaren aldaketa (PES-673). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Gaur egun, azaroak 23, hau da Erronkari Jatorrizko Deituraren baldintza-agiriaren aldaketaren egoera:

1. Informazio osagarria behar zuten gaiei buruzko txostena Landa eta Itsas Inguruneke Ministerioaren bidez (aurrerantzean, LIIM) Batzordera 2010eko maiatzean bidali ondoren, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak gonbita jaso du batzordeko zerbitzuek aipatu ministerioarekin urriaren 6an egin beharreko bitariko bilerara joateko. Bileraren xedea zen Erronkari Jatorrizko Deituraren baldintza-agiriaren aldaketa.

2. Aipatu bileran parte hartu zuten LIIMek eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, eta bertan Batzordearen zerbitzu teknikoek jasotako informazioari buruz zuten jarreraren berri izan genuen. Hona hemen, laburbilduta:

a) Ez da atzera bota aldatzeko eskaera.

b) Batzordearen ustez, lurraldearekiko lotura mantentzean oinarritutako justifikazioa ez da erabat asegarria; halaber, uste du zenbait justifikazio-elementu alboratu egin direla, eta bai Ministerioari bai Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari aholkua ematen die justifikazio berri bat presta dezaten.

c) Gogorarazten du beharrezkoa dela agiri bakar berri bat aurkeztea, 1. puntuan aipatu dokumentazioarekin batera igorri ez ziren proposamenak jasoko dituen. Beharrezkoa da agiri hori dokumentazioari gehitzea izapideekin jarraitu ahal izateko.

3. Prozedura bere osotasunean formalizatze aldera, LIIMk, bitariko bilera egin eta biharamunen, mezu elektronikoko bat bidali zien Batzordeko zerbitzuei. Bertan esaten zuen konpromisoa hartzen zuela laster dokumentazio osoa bidaltzeko –agiri bakarra gehi baldintza-orriaren aldaketari buruzko justifikazio teknikoaren azalpen-testu bat–, 510/2006 Erregelamenduan ezarritako eskakizunak beteta.

4. Departamentuak badaki Kontseilu Arau-emaileko zenbait ordezkari Europako Batzordera joan zirela gertutik ezagutze aldera zertan zen espedientearen izapidetzea eta zeintzuk ziren Batzordearen eskakizunak.

5. Une honetan, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua zain dago, kudeaketa-organoak (Erronkari Jatorrizko Deiturako Kontseilu Arau-emaileak) beharrezkoak diren erabakiak hartu eta aurreko atalean adierazitako testuak bidal ditzan, haiek berrikusi eta Europako Batzordeari bidaltzeko, LIIMren bidez.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko abenduaren 10ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, larrialdietako probak egin ondoren gaixoak ospitaleko gelara eramateko prozeduran gertatzen diren atzerapenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du larrialdietako probak egin ondoren gaixoak ospitaleko gelara eramateko prozeduran gertatzen diren atzerapenei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko azaroaren 12ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du, larrialdietako probak egin ondoren gaixoak ospitaleko gelara eramateko prozeduran gertatzen diren atzerapenei buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Larrialdi Zerbitzuan adierazten denean norbait ospitaleratu egin behar dela, honakoa da prozedura:

– Gaixoaren ardua duen fakultatiboak ospitaleratzea indikatzen du, eta, horretarako, ospitaleratze eskaera bat bete eta Larrialdietako Harrera Zerbitzuko administrariari ematen dio.

– Larrialdietako Harrera Zerbitzuko administrariak, HOST programa informatikoan oherik ba ote den kontsultatu ondoren, Erreferentziako Erizaintza Unitatean libre ageri den oheetako bat eskatzen du fakultatiboak indikatutako espezialitate medikorako.

– Behin ohea esleituta, gaixoa Larrialdietako Zerbitzutik ohera eramaten da, hala adierazten dutenean kasuan kasuko unitateko erizaintzako langileek; helburua da "gaixoak erizaintzako unitateetan hartzeko protokoloa" esaten zaiona aplikatzea.

– Ospitaleratze Unitatetik Larrialdietako Harre-rakoei jakinarazten zaienean egin daitekeela ospitaleratzea, eta Larrialdietako Zerbitzuan gaixoaren arduradun izandako fakultatiboari eta erizainari horren berri eman ondoren, zeladoreari eskatzen zaio gaixoa eraman dezala esleitutako ohera.

– Galderak aipagai duen gertakariari dagokionez, informazio gehiago izan beharko genuke aipatzen diren gaixoei buruz, zehazteko ea gertatu zen justifikatu gabeko atzerapenik, eta horren zergati posiblea.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko azaroaren 24an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Ikerketa Institutuari eta Ikerketa Biomedikorako Plan Estrategikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Asun Fernández de Garaialde andreak galdera egin du Ikerketa Institutuari eta Ikerketa Biomedikorako Plan Estrategikoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko azaroaren 26ko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak galdera egin du Ikerketa Institutuarekin eta Ikerketa Biomedikorako Plan Estrategikoarekin lotutako zenbait gairi buruz (PES-519/09). Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Ikerketa Biomedikoaren Zentroa kudeatzeko forma desberdinak aztertzekeo lantaldea sortu zuen foru agindua erantsi da.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzekeo.

Iruñean, 2010ko abenduaren 21ean

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

103/2010 Foru Agindua, abenduaren 13koa, Osasun kontseilariarena, Ikerketa Biomedikoaren Zentroa kudeatzeko forma desberdinak aztertzekeo lantaldea sortzen duena.

Maiatzaren 19ko 137/1997 Foru Dekretuaren bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Ikerketa Biomedikoaren Zentroaren funtzionamendua arautu zen. Dekretu horren lehenbiziko artikulua arabera, Ikerketa Biomedikoaren Zentroa Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua-ren menpeko laguntza zentro tekniko bat da, Osasun Departamentuaren eta Nafarroako Osasun Planaren helburu eta lehentasunen ildotik, osasun zientzien arloko ikerkuntza jarduerak garatzen dituena.

Ikerketa Biomedikoaren Zentroa Nafarroa 2012 Planean jasotako azpiegitura bat da, 2009ko irai-

lean eraikitzen hasi zena Nafarroako Ospitalegu-nearen ondoan.

Ikerketa Biomedikoaren Zentroak, dituen plataforma teknologikoekin eta laguntza unitateekin, helburuok ditu: Osasunbideko ikertzaileen eskura teknologiak jartzea modu zentralizatu eta efizientean, halako moduan non hori lagungarria izanen baita ikerketa traslazionaleko eta emaitzen kalitatea areagotzeko; dagoen teknologia osatuz sektoreko behar teknologikoak ere ase nahi dira, eta, I+G+b biosanitarioa bultzatzearekin, Nafarroaren garapen ekonomikoa ere lagundu nahi da bestalde.

Osasun Departamentuaren estrategia da indartzea ezagutzaren sorrera, eta berariaz bultzatzea ikerketa biomedikoa osasun sistema publikoan. Izan ere, ikerketa biomedikoa nahitaezkoa da ospitaleetan, areagotu egiten baititu ezagutza, gure profesionalen eta gure osasun sistemaren prestigioa; horrek talentua erakartzen du eta, bereziki, azkarrago pasarazten du ezagutza praktika klinikora, eta, hala, zerbitzuaren kalitatea areagotu egiten da.

Helburuok lortzeko, aztertu beharra dago zer kudeaketa-modu dituzten Osasun Sistema Nazionalako ikerketa biomedikoko zentroek, Nafarroako Ikerketa Biomedikoaren Zentroarentzat egokiena hautatzeko. Lan hori egiteko jo da egokia lantalde tekniko bat sortzea.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuari eta lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 41. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz,

AGINDU DUT:

1. Lantalde tekniko bat sortzea, Ikerketa Biomedikoaren Zentroa kudeatzeko forma desberdinak aztertuko dituena.

2. Hauek osatuko dute lantalde teknikoa:

LEHENDAKARIA: María Kutz Peironcely, Nafarroako Gobernuko Osasun kontseilaria.

KIDEAK:

– Isabel Martín Montaner andrea, Osasuneko zuzendari nagusia.

– Francisco Javier Sada Goñi jauna, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Laguntza Espezializatuko zuzendaria.

– José María Ayerra Lazcano jauna, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Giza Baliabi-deetako zuzendaria.

– José Luis Moreno Ochoa jauna, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Administrazio eta Antolaketa zuzendaria.

– Encarnación Pérez Equiza andrea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Ikerketa Biomedikoaren Zentroaren zuzendaria.

– Juan Cabasés Hita jauna, kudeaketa sanitarioan aditua.

– Iñigo Goenaga González jauna, kudeaketa sanitarioan aditua.

– Nafarroako Comptos Ganberako ordezkari bat.

IDAZKARIA: Purificación González Merchán andrea, Osasun Departamentuko idazkari nagusi teknikoa.

Lantalde teknikoak bere eginkizunak gauzatzeko beharrezkoa den babesa, aholkularitza eta lan-kidetza izaten ahalko ditu.

3. Lantalde teknikoak eginkizunok izanen ditu:

a) Ikerketa biomedikoko zentro nazionalak eta nazioartekoak dituzten kudeaketa-moduak azertu.

b) Nafarroako Ikerketa Biomedikoaren Zentroarentzat egokiena den kudeaketa-eredua planteatu.

c) Lantaldearen eskumenen esparruan beharrezkoa gertatzen den beste edozein eginkizun.

4. Lantalde teknikoaren antolamendua eta funtzionamendua horretarako adosten diren barne-arauek ezarriko dituzte. Barne-araurik ezean, abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean kide anitzeko organoentzat aurreikusitako arauak aplikatzen ahalko dira.

5. Foru agindu hau Idazkaritza Tekniko Nagusiarri igortzea eta interesdun guztiei jakinaraztea, orok jakin dezan eta behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2010eko abenduaren 13an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Tratamendu kroniko garestiek eragindako gastuak kitatzerakoan baliatutako prozedurari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Tratamendu kroniko garestiek eragindako gastuak kitatzerakoan baliatutako prozedurari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko azaroaren 26ko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du jakiteko zer prozedura darabilen Nafarroako sistema publikoak aseguru partikular bat (Muface) duten pertsonak

tratamendu kroniko garestiak jasotzen dituztenean sortzen diren gastuak kitatzerakoan. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

1.- Aseguru konpainia pribaturen batek osasun-zerbitzu bat ordaindu behar badu, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak fakturatu eginen dio zerbitzu hori, unean-unean indarrean dauden tarifen arabera, zeinak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuta egoten baitira.

Mufaceren kasu zehatzean, Nafarroa osoan osasun-zerbitzua emateko betebeharra duena, horretarako sinatutako hitzarmenak oinarri, honako hau da: Igualatorio Médico-Quirúrgico y de Especialidades de Navarra, S. A. (IMQ).

IMQk bitarteko egokirik ez badu edo, arrazoia edozein dela ere, IMQk gaixoak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzura igortzea erabakitzen badu, Osasunbideak kasuan kasuko faktura eginen dio IMQri.

2.- Bi eta hiru hilabete artean, batez beste.

3.- Aukera hori egon badago. Urtero, Muface, Isfas eta Mugelu mutualitateetako kide direnek aukera dute Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzura aldatzeko.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko abenduaren 17an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Mendillorriko Bigarren Hezkuntzako Institutuari atxikitako ikasleen eskolatzearen gaineko aurreikuspenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Mendillorriko Bigarren Hezkuntzako Institutuari atxikitako ikasleen eskolatzearen gaineko aurreikuspenei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko azaroaren 26ko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko abenduaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru-parlamentarien elkarteari atxikitako foru-parlamentari Ana Figueras Castellano andreak idatzizko erantzuna jasotzeko galdera bat egin du (PES-674) Mendillorriko Bigarren Hezkuntzako

Institutuari atxikitako ikasleen eskolatzearen gaineko aurreikuspenei buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

Hezkuntza Departamentuak plangintza zehatza egin du legegintzaldi honetan zehar, Nafarroako irakaskuntza publikoko ikastetxeen hezkuntza-premiak direla eta. Plangintza horrek gidatu ditu ikastetxe berriak eraikitzeko obrak, bai eta ikastetxeak handitzeko eta hobetzeko obra ugari ere. Guztira, Nafarroa 2012 Planeko orain arteko 50 jarduketa egiteko 56 milioi eurotik gorako inbertsioa egin da haur eta lehen hezkuntzako nahiz bigarren hezkuntzako ikastetxeetan.

Mendillorriko auzo iruindarrean epe motzeko, ertaineko eta luzeko azterlanak egin dira, eta 2020ra arteko datu zehatzak atera dira, Sarrigurrengo edo Erripagaineko eragin-eremuak barne. Azterlan horietan kontuan hartzen da eskolapopulazioaren portaera, auzoaren edo herriaren demografiaren arabera.

URTEA	SARRIGUREN		MENDILLORRI			ERRIPAGAINA	
	Populazioa	Ikasleak	Populazioa	Ikasleak	Ikasleak	Populazioa (estimazioa)	Ikasleak
1997				423			
1998				539			
1999			7.731	674			
2000			9.115	826			
2001			9.489	1.039			
2002			9.775	1.259			
2003	10		10.601	1.441			
2004	8		11.099	1.609			
2005	5		11.315	1.719			
2006	78		11.322	1.775			
2007	1.627	103	11.349	1.831			
2008	3.584	158	11.317	1.888	336		
2009	5.088	274	11.435	1.971	568		
2010	9.712	407	11.496	1.602	839		
2011		500		1.465	1.022		
2012		579		1.311	1.231	2.544	150
2013		697		1.180	1.348	6.393	350
2014		814		1.071	1.397		
2015		961		994	1.384		
2016		1.082		937	1.341		
2017		1.176		865	1.324		
2018		1.250		820	1.261		
2019		1.288		800	1.207		
2020		1.320		793	1.168		

Ikus daitekeenez, Mendillorriko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako eskola-populazioa 2009/2010 ikasturtean iritsi zen ikasle-kopuru handiena izatera, eta kopuru horrek behera egin du, 2017/2018 ikasturtean egonkortu arte, orduan lerro bat egonen baita ikastetxe bakoitzean.

Pedro de Ursúa BHI, berriz, 2014/2015 ikasturtean iritsiko da ikasle-kopuru handiena izatera, jaietsiera txiki bat izanen du hurrengo hiru ikasturteetan, eta behera egiten hasiko da 2020ra arte, orduan aurreikusten baita gertatuko dela ikastetxe taldeen egonkortasuna: 45 talde inguru.

Sarrigureni dagokionez, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe berri bat egin zen, 3 lerrokoa, eta etorkizunari begira kontratatu da 2 lerro gehiago irekitzea; irekitze hori 2011ko irailean egonen da abian. Udalak 2 lurzati jarri ditu Hezkuntza Departamentuaren esku, bata 7.000 metro koadrokoa eta bestea 6.000 metro koadrokoa, egokia denean eskola-erabilerako eraikinak egin ahal izan daitezen.

Erripagainean badira ekipamenduetarako 3 lurzati, hezkuntza-erabilerara bideratuak; horietako bat lehen zikloko haur hezkuntzako ikastetxe bat jartzeko. Hezkuntza Departamentuaren azterlanen arabera –Nafarroako Gobernuak Lurraldearen Antolamendu Departamentuarekin adostuta–, 2012an etxebizitzak emateak eraginen du haur eta lehen hezkuntzako ikasle gutxi batzuk gehiago egotea. Eskolatze-beharrizanak orobat ase daitezke inguruko beste ikastetxe batzuetan.

Hortaz, kontuan hartuta bigarren hezkuntzako ikasle-kopurua igoko dela, egoera ikuspuntu guzti-

etatik aztertu ondoren eta hezkuntza-erkidego osoaren iritzia entzun ondoren, batez ere Mendillorriko ikastetxeetako zuzendaritzena, eraikin berri bat egitea erabaki da, modu adostu eta parte-hartzailean erabaki ere, institutu horretako DBHko lehen zikloa hartuko duena.

Jarduketa horrek aukera emanen du etapa horretako ikasleentzako behar adina leku hornitzea, bai eta ikastetxearen autonomia errespetatzeko eta alderdi horretako ikasle aniztasunari erantzuteko orain nahiz etorkizunean, eta horrenbestez hezkuntzaren kalitatea eta gizarte-kohesioa ziurtatzeko, eta hori nabarmentzea gustatuko litzaidake, hartutako erabakiaren oinarrian baitago, hori dena lehentasunezko helburua delako Nafarroako Gobernuarentzat. Eskola-porrotaren tasa horrengatik da Espainiako batez bestekoa baino askoz ere txikiagoa Nafarroan.

Eraikin berriak Pedro de Ursúa BHIko DBHko lehen ziklo osoa hartuko du, behar diren azpiegitura guztiak izanen ditu –araudiak ezarritakotik gora, alegia–, hori baita BHIko zuzendaritzarekin adostu dena, eta, esan bezala, bikoizketen programa errespetatuko da, aniztasuna artatzen jarraitu ahal izateko. Instalazioa 22 talde hartzeko prestaturik egonen da: bikoizketako gelak eta berariazkoak, gimnasioa, kirol pista estali bat eta estali gabeko beste bat.

Konponbide hori ez da BHIko zuzendaritzarekin soilik adostu –zuzendaritzak egokia iritzi dio–; izan ere, Mendillorriko ikastetxeetako guraso-elkarteei ere jakinarazi zaie, eta horiek ere babes-tute konponbidea.

Eraikina 8.560 metro koadroko lurzati batean egonen da, Lago de Mendillorri IPren ondoan eta Pedro de Ursúa BHItik gertu.

Proiektua lizitzatzeko eta DBHko ikastetxe berria eraikitzeke administrazio-prozedurak abiarazi dira; ikastetxea, bere lehen fasean, 2011ko irailean egonen da prest. DBHko lehen mailako 11 talde hartzeko behar den programa betetzen ari da fase honetan, gela eta kirol instalazio guztiak barne.

Egiten ari den proiektua proiektu oso bat da; hortaz, bigarren fasearekin jarraitu ahal izatea ere

jasoko du, eta, beranduenez ere, DBHko 2. mailako taldeak hurrengo ikasturtean hartuko ditu. Hartara, zehatz-mehatz definituko dira erabilerarako eta obrarako espazioak, eta bereizita egonen direnez gero, erabiltzaileen erabateko segurtasuna bermatuko da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua betez.

Iruñean, 2010eko abenduan

Hezkuntzako kontseilaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Nafarroako Ubidearen Artaxoako zatiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Ubidearen Artaxoako zatiari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko abenduaren 7ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Galtzen den ura ez du inork ordaintzen.

Galtzen den ura ez zaie erabiltzaileei fakturatzeko; izan ere, sektore bakoitzaren hasierako eronbidean dagoen kontagailuarekin fakturatzeko du "Canal de Navarra, S.A."k.

2.- "Canal de Navarra, S.A."k dioenez, onetsita-ko proiektuan ez zen aurreikusitako lur-erazketen guneetan iragazgaizte-xaflak paratzea, eta horren arabera jokatu da.

3.- Nafarroako Gobernuak ez du ordainketarik egin aipatu konponketa-lanengatik.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko abenduaren 21ean

Herri Lan, Garraio eta Komunikazioko kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, Galar Zendeako udal dermioan ehiza barruti bat egoteko baimenik ez ematearen arrazoiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Gracia Iribarren Rivas andreak galdera egin du Galar Zendeako udal dermioan ehiza barruti bat egoteko baimenik ez ematearen arrazoiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko abenduaren 7ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du Galar Zendeako udal dermioan ehiza barruti bat egoteko baimenik ez ematearen arrazoiei buruz (PES-680). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Galarko 8. poligonoa "Francoandía" izeneko finkaren zati bat da, eta jabea Nafarroako Foru Komunitatea da. Poligono hori, Zizurko 12. poligonoarekin batera –hori ere finkaren barruan dago oso-osorik–, ehizatik salbuetsita dago zenbait arrazoirengatik. Besteak beste, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, zeina

Nafarroako Oihan Ondareko finken kudeatzailea baita, oilagorra ehizatzen ez den espazio libreak izan nahi dituelako, gisa horretako ondareak baliatuta, hain zuzen ere. Bestalde, barruti mugakideak behar bezain handiak direnez, ez da beharrezkoa lursail horiek sartzea. Zehazki, Arlegiko barrutia, Galarren ehizan erabil daitezkeen lursailak hartzen dituen, 5.625 hektareakoa. Poligono hori barrutian ez sartzeko beste arrazoi bat da ondare horren kudeaketa bera, Nafarroako Zaldikoa irau-narazteko balio duena (zaldi-espezie hori desagertzeko arriskuan dago, eta Departamentu honen ardura da, nagusiki, espeziea irau-narazteko ardura). Biodibertsitatea Zaintzeko Zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 9ko 297/2010 Ebazpenaren bidez, nekazaritza-kalteak direla-eta basurdea ehizatzea baimendu da soilik; ebazpenean jasotzen dira jarduera hori garatzeko baldintzak eta egutegiak. Ebazpena erantzun honi atxiki-rik doa.

Hori jakinarazten dut Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko abenduaren 23an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Ágora Parlamentu kudeaketarako tresnan).

Galdera, Liztor asiarra (vespa vetulina) detektatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Liztor asiarra (vespa vetulina) detektatzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko abenduaren 7ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du liztor asiarra (vespa vetulina) atzemateari buruz (PES-681). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Frantziako lurraldea hurbil dagoenez –han egon badago espezie hori–, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak prospekzioak egin izan ditu mugatik gertuko alderdietan, aukera zegoelako espeziea hemen ere azal zedin, eta hala gertatu da. Prospekzio horietan detektatu zen, iragan azaroan hain zuzen ere, espezie hori bi herritan agertu zela: Luzaide eta Oiiregi.

Prospekzio-lan prebentiboa eta jarraipen-lana egin da, bai gisako beste habia batzuk detektatzeko bai detektatutako bi habien dinamika zehazteko.

Espezia desagerrarazteko metodologia zuzena aplikatze aldera, kasuko kontsulta egin zitzaion Inbasio Biologikoak Aztertze Taldeari, eta hark zelaiko lanetarako aukerak iradoki zituen, Frantzi- an zeukaten informazioaren eta herrialde horretan hartutako neurrien arabera. Alderdi hori bereziki garrantzitsua zen ekidite aldera desagerrarazte- metodo desegoki bat aplikatzeak kolonien sakaba- naketa eragin zezan. Aukera horiek dira ura erabil- tzea, tokian-tokian intsektizida erabiltzea, habia erauztea eta erraustea edo, okerreanean ere, jaurti- gaien bidez kaltetzea.

Lan horren ondorioz, bi habiak ezabatzen dire- la ziurtatzeko neurri egokiak hartu dira. Ez da jasota ageri erlauntzei eragin izana bi kasu horie- tan.

Hori jakinarazten dut Parlamentuko Erregela- menduaren 192. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2010eko abenduaren 23an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontsei- laria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Segurtasunaren Hirirako aurrekontuei buruzkoa eta aurrekontu horietatik betetakoari eta gastatutakoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Segurtasunaren Hirirako aurrekontuei buruzkoa eta aurrekontu horietatik betetakoari eta gastatutakoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko abenduaren 7ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Segurtasunaren Hiriko aurrekontuen gaineko datuei buruz (PES-683). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariaren erantzuna:

Segurtasunaren Hiriak, zeina, Nafarroa Plana 2012 deiturikoan, lehentasuna duten 90 jarduketetako bat baita, 40 milioi euro zituen hasieran. Hasi-erako balorazio ekonomikoa, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Alderdi Sozialistak sinatutako dokumentuan azaltzen denez, Barne Zuzendaritza Nagusiaren menpeko instalazio guztien eraikina eraikitze aurreikusitako kostuari buruzkoa zen; alegia, Segurtasun Eskola, Foruzaingoarentzako zenbait eraikin, Nafarroako Larrialdi Agentzia, Zuzendaritza Nagusiaren Zerbitzu Nagusiak eta Ibilgailu-parkea, besteak beste.

Denbora iragatearekin eta hiria diseinatzeko lehen urratsekin batera, Nafarroako Gobernuaren mendeko beste administrazio-egitura batzuek espresuki erakutsi zuten Segurtasunaren Hiriaren perimetroan instalatzeko interesa, edo kokalekua- ren egokitasuna frogatu zen. Esate baterako, Arkeologia Biltegia eta Administrazio Artxiboa, biak ala biak Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren mendekoak. Ez da bazterten beste eraikin administratibo batzuk ere bertan kokatzea.

Bestalde, xede horrekin egindako hasierako azterlanetako batek (Price Waterhouse and Coo-

pers enpresari agindutako merkatu-azterlanak) detektatu zuen sektore pribatuan eskari handia zegoela gisa horretako azpiegitura zentralizatu- tan instalatzeko; hortaz, lehen fase osoa urbaniza- tze gomendioa egiten zuen, halako moduan non sektorearekin lotutako enpresak bertan ezartzea erraztuko baitzen.

Parlamentari andreak adierazitako azken kos- tua –89 milioi euro– alderdi publikoaren eta alderdi pribatuaren urbanizazioaren kostua izan da, insta- lazio berekien edo Barne Zuzendaritza Nagusiare- kin lotutako instalazioen eraikinetarako aurreikusi- takoak barne.

Nafarroako Gobernuak konprometitutako gas- tuei dagokienez, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearekin bat, adierazi beharra dago Nafarroako Gobernuak 2010eko irailaren 20ko erabaki bidez baimena eman ziola Barne zuzendari nagusiari urte anitze- ko gastu konpromisoa har zezan, finantzatze alde- ra Navarra de Suelo Residencial, S. A.ri agintzea Segurtasunaren Hiriaren udalez gaindiko plan sektoriala taxutzeko lanen zuzendaritza eta lagun- tza teknikoa.

Erabaki hark ondoko denbora- eta ekonomia- egozpena ezarri zuen:

– 148.303,49 euro, Nafarroako 2010erako aurrekontu orokorretako “Nafarroa 2012 Plana. Segurtasunaren Hiria” izeneko 050000-02000-6091-131100 aurrekontu-kontusailaren kargura.

– 1.500.000,00 euro, Nafarroako 2010erako aurrekontu orokorretako “Nafarroa 2012 Plana. Segurtasunaren Hiria” izeneko 050000-02000-6091-131100 aurrekontu-kontusailaren kargura.

Kasuko agindua Barne zuzendari nagusiak baimendu zuen irailaren 23ko 3963/2010 Ebazpe- naren bidez, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Kontratazio Atarian eman zen argitara.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Par- lamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2010eko abenduaren 20an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseila- ria: Javier Caballero Martínez

Galdera, Segurtasunaren Hirirako lurren erreserbari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Segurtasunaren Hirirako lurren erreserbari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko abenduaren 7ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2010eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Segurtasunaren Hiriko aurrekontuen gaineko datuei buruz (PES-684). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Parlamentari berak eginiko PES-683/2010 galderari emaniko erantzunean adierazitakoarekin bat, aipatu behar da Segurtasunaren Hiriaren lehentasuneko proiektuaren hasierako ikuspegia-ri jarraituz, 2008ko lehenbiziko seihilekoan, haren muga geografiko gisa ezarri zirela Eguesibarko eta Aranguren ibarreko hirigintza-planeamenduko alde zurretiko azterlanetan aukera-eremutzat jo zirenak, asmoa baitzen, horrela, ukitutako toki entitateetako hirigintza-garapenekiko interferentziak saihestea; ukituta zeuden Eguesibar, Aranguren ibarra eta Iruñea.

Une hartan planteatzen zena zen Segurtasunaren Hiriaren Proiektuaren bitartez bateratzea Barne Zuzendaritza Nagusiarekin zerikusia zuten eraikin administratibo sakabanatuak (Agoitz kalekoa, Belosokoa, Beriaingoa eta Cordovillakoa), eta, gainera, eremu bat irekitzea enpresa pribatuei edo publikoei; hain zuzen ere, zerikusia dutenei

Zuzendaritza Nagusiaren eginkizun eta eskumen nagusiekin, segurtasunarekin, poliziarekin eta larrialdiekin. Hori modu egokian planteatzen zen, 1.500.000 m² lurzoru erreserbatuta.

Hilabeteak pasatu eta interes publiko eta pribatuak biltzearekin batera –adierazi dira PES 683/2010 galderari emaniko erantzunean–, beharrezkoa gertatzen zen handitzea proiektuaren muga fisikoak eta geografikoak.

Gainera, beste arrazoi batzuek ere eragin dute lurzoru gehiago erreserbatu izana. Arrazoi horien artean, azpimarratzekoa da lurzoruak aztertu eta Ondare Historikoaren ikuspuntutik babestutako ondasunak agertu direla, Noaingo akueduktua edo aztarnategi arkeologikoak esate baterako, eta horiek babestea legezko baldintza saihestezina da. Era berean, udalez gairako eragina duten garapen planak onetsi dira, nola baitira Mendillorri eta Badostain, eta, azkenik, arrazoi geografiko hutsak ere hartu dira kontuan; konparazio baterako, azaleko isurketak erregulatzeko putzuak, edo orografia bera, pendiz dezentekoak baitaude.

Aipatutako arrazoi horietako bakoitzari emaniko erantzunen ondorioz, errealitate fisikoa aldatu egin da. Adibidez, 2010eko maiatzaren 5era arte, ez zitzaion Eguesibarko Hirigintzako Planari hasierako onespenera eman; erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2010ko ekainaren 2an. Era berean, oraindik ez da onetsi Aranguren ibarreko Estrategia eta Lurraldearen Antolamendua-aren erredua. Hortik ere etor daiteke Segurtasunaren Hirirako erreserbatutako lurzoruetan aldaketaren bat.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 192. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2010eko abenduaren 20an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, Berriozarko Artiberri II auzunean bizi diren pertsonak zer osasun etxeri atxikiko zaizkion jakiteko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Asun Fernández de Garaialde andreak galdera egin du Berriozarko Artiberri II auzunean bizi diren pertsonak zer osasun etxeri atxikiko zaizkion jakiteko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko azaroaren 26ko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde andreak galdera egin du jakiteko Berriozarko Artiberri II auzunean bizi diren pertsonak zer osasun etxeri atxikiko zaizkion. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Sanduzelaiko, Arrotxapeko eta Berriozarko osasun eskualde oinarrizkoetan biztanleen kopuruak gora eginen zuela aurreikusita, beste osasun eskualde bat sortzeko planak egin ziren; Buztin-

txuriko osasun eskualde oinarrizkoa, hain zuzen. Osasun eskualde oinarrizkoa sortu zen, jada, 6/2009 Foru Legean, 2010erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoan, zeina 2009ko abenduaren 29an argitaratu baitzen Nafarroako Aldizkari Ofizialean (160. zk.). Hamabosgarren xedapen gehigarrian –Osasun eskualde oinarrizko berriak sortzea– honakoa zehaztu zen:

"1. Buztintxuriko osasun eskualde oinarrizkoa sortu da, Iruñeko udalerriko 7. barrutiko 9. eta 23. sekzioak eta Berriobeitiko udalerriko Artikako Kontzejua barne hartzen dituena".

Aldez aurretik eginiko plangintza funtzionalean aipatzen zen Artiberri II auzunearen zati bat Berriozar zela eta beste bat Artika (Berriobeiti), baina, hala ere, onartzen zen Artiberri II osoak, hirigintza proiektuaren barne-koherentziarekin bat, oinarrizko osasun eskualde berean egon behar zuela, eta, hala, Buztintxurikoari esleitzea jotzen zen egokiena.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko abenduaren 22an

Osasuneko kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Leitzako osasun etxean Leitzaldeko hirugarren adinekoentzako geriatría zerbitzua jartzeko asmorik baden jakiteko.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Leitzako osasun etxean Leitzaldeko hirugarren adinekoentzako geriatría zerbitzua jartzeko asmorik baden jakiteko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko azaroaren 26ko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Leitzako osasun-etxean geriatriako zerbitzua ezartzea aurreikusi den jakiteko. Hona hemen Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Leitzako oinarrizko osasun eskualdeko pazienteei geriatrikoak Oinarrizko Laguntzako sendagileek behar bezala artatuta daude, eta ez dago osasun-etxean geriatriako zerbitzurik ezarri beharrik.

Zehaztu beharra dago Oinarrizko Laguntzako sendagilea sendagile espezialista dela, lau urteko

espezialitate-prestakuntza daukana; haren prestakuntzaren funtsezko zati bat da gaixo horiek artatzea. Gaixo horiek artatzeko gidak eta protokoloak garatu dituzte, orobat.

Hortaz, Nafarroako Gobernuak ez dauka pensatuta geriatriako zerbitzu bat ezartzea, ez Leitzako

ko osasun-etxean ez beste inongo osasun-etxetan ere.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko abenduaren 21ean

Osasuneko kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, EMPTY enpresarekiko betebeharrak ekonomikoei edo hari ordaindu beharreko kalte-ordainei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du EMPTY enpresarekiko betebeharrak ekonomikoei edo hari ordaindu beharreko kalte-ordainei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko abenduaren 7ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Patxi Telletxea Ezkurra jaunak galdera egin du, jakiteko zein diren Nafarroako Gobernuak EMPTY enpresarekin gaur egun dituen betebeharrak ekonomikoei edo kalte-ordainak eta Entzierroaren eta Sanferminen Museoa hurrengo aurrekontu ekitaldietan egiten

ez baldin bada, Nafarroako Gobernuak inolako betebeharrak ekonomikori aurre egin beharko al liokeen (PES 682). Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak ez du inolako betebeharrak ekonomikori EMPTY enpresarekin; izan ere, Gobernuak lankidetzaren hitzarmen bat du Iruñeko Udalarekin, zeinaren bidez diru-laguntza ematen baitio Udalari, hark egin baitzuen esleipena.

Entzierroaren eta Sanferminen Museoa hurrengo ekitaldietan egiten ez balitz, Gobernuak ez lioke inolako betebeharrak ekonomikori aurre egin beharko hori dela eta.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2010eko abenduaren 30ean

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Biogasa dela-eta Nafarroako Foru Komunitatean dauden proiektuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Biogasa dela-eta Nafarroako Foru Komunitatean dauden proiektuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko abenduaren 17ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak informazioa eskatu du Nafarroako biogas proiektuei buruz (10PES-687). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Hona Departamentuan aurkeztu eta izapidetzen ari diren diren biogas proiektuak:

E-Cogeneracion Cabanillas, S.L.	Cabanillas
SPD Biogas, S.L.	Lezaun
SPD Biogas, S.L.	Deierri

Bi motatakoak dira gisa horretako proiektuak sustatze aldera Nafarroako Gobernuak ezarritako neurriak. Batetik, energia berriztagarriak sustatze-

ko berariazko neurriak; bestetik, izaera orokorrean enpresa-inbertsioa bideratzen dutenak.

Lehendabizikoan artean aipa daitezke Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguko kontseilariaren apirilaren 29ko 140/2010 Foru Agindua (maiatzaren 28ko 65. NAO), zeinaren bidez zehaztu baitziren enpresa inbertsiorako laguntzen esparruan energia berriztagarrien iturriak aprobetxatzeko diru-laguntza jaso dezaketen jarduerak; 1. artikuluko a) letran jasotzen da energia termikoa eta/edo elektrikoa ekoiztea, Energia elektrikoa araubide berezian ekoizteko jarduera arautzen duen maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretuko b.6.3 azpimultzoan eta b.7 eta b.8 multzoetan sailkatutako dauden biomasa eta biogas motak erabiliz.

Bigarrenen artean ageri dira enpresa-inbertsiorako laguntzak, Enpresei inbertsiorako emanen zaizkien laguntzen araubidea ezartzen duen Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguko kontseilariaren azaroaren 10eko 488/2009 Foru Aginduaren bidez garatuak (azaroaren 23ko 144. NAO), bai eta Enpresei inbertsiorako laguntzak emateko oinarri arautzaileak onesten dituen Enpresako zuzendari nagusiaren azaroaren 11ko 2603/2009 Ebazpenaren bidez ere (azaroaren 23ko 144. NAO).

Hona laguntzen intentsitateak eta laguntzak emateko irizpideak:

a) Diruz laguntzen ahal den inbertsioaren bolumen erlatiboa:

Enpresaren tamaina	Gutxieneko inbertsioa	Laguntzen mapan sartutako eremuko laguntza	Lagundu gabeko eremuko laguntza
Mikroenpresa	30.000	% 27	% 17
Enpresa txikia	100.000	% 27	% 17
Enpresa ertaina	100.000	% 17	% 7
Enpresa handia	100.000	% 7	Laguntzarik ez dago

b) Enplegu egonkorra mantentzea edo sortzea, inbertsio proiektuaren ondorio zuzenez.

Laguntzak jasotzen dituen enpresak lanpostu finkoak mantentzen baldin baditu inbertsio-epean zehar, arestiko letran ezarritako diru-laguntzaren ehunekoa 2 puntu igoko da, eta lanpostu finko

berriak sortuz gero, beste puntu bat gehiago igoko da.

Enpresaren tamainaren arabera emanen da maileguren edo leasing-en interesen hobaria, eta gehienez ere ondokoa izanen da:

Tamaina	Hobari puntuak
Mikroenpresa eta enpresa txikia	5
Enpresa ertaina	4
Enpresa handia	3

Titularra	Amaiera	Potentzia (kW)	Egoera
Iruñerriko Zerbitzuak, S.A.	Arazuri	1210	1210 kW-eko behin betiko inskripzioa 2200 kW-era handitzea, izapidetzen
Iruñerriko Zerbitzuak, S.A.	Aranguren-Gongora	816	816 kW-eko behin betiko inskripzioa 1500 kW-era handitzea, izapidetzen
Erriberako hondakin solidoen mankomunitatea	Tutera	1426	Zerbitzua abiarazteko akta, 2010/03/30
E-Cogeneración Cabanillas S.L.	Cabanillas	500	Izapidetzen
Hibridación Termosolar Navarra, S.L.	Caparroso	2900	Zerbitzua abiarazteko akta, 2010/10/15
BIOENERGÍA MENDI, S.L.	Mendigorria	500	Zerbitzua abiarazteko akta, 2010/12/13
Bioenergía Ultzama, S.A.	Ultzama	500	Zerbitzua abiarazteko akta, 2010/12/17
SPD Biogas, S.L.	Lezaun	500	Izapidetzen
SPD Biogas, S.L.	Deierri	500	Izapidetzen
Agralco S.Coop.	Lizarra	640	Zerbitzua abiarazteko akta, 2010/02/12

Iruñean, 2010eko abenduaren 4an

Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguko kontseilaria: José María Roig Aldasoro

Galdera, Nekazaritza Politika Bateratu berriaren dokumentuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nekazaritza Politika Bateratu berriaren dokumentuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko abenduaren 17ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nekazaritza Politika Bateratu berriaren dokumentuari buruz (10PES-685). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Komunikazioak hiru aukera ongi bereizi planteatzen ditu 2013tik aurrerako Nekazaritza Politika Bateraturako; hurrengo hilabeteetan, horien gainean eztabaidatu eta zehaztuta utziko da zein neurri eta laguntza-sistema izanen diren gure ustiatuegi biziraupena ziurtatuko dutenak 2013tik aurrera.

Nafarroako Gobernuaren jarrera zehazteko, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak prozesu bat jarri du abian nekazaritzako entitateek eta organizazioek parte har dezaten,

eta, hala, jakin dadin eta eztabaida dadin zein den nekazaritza-sektoreko entitate eta organizazio horien jarrera komunikazio horri dagokionez. Azken helburua da dokumentu batean zehaztea zeintzuk izanen diren Nafarroako Gobernuak aldeztuko dituen proposamenak ahalik eta fororik gehienetan, eta, bereziki, Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioaren aurrean. Hau da, 2008an Nekazaritza Politika Bateratuko "txe-keo medikoa" eztabaidatzen ari zenean abian jarri genuen ereduari jarraituko diogu.

Prozesu hau abian da, eta, hala, abenduaren 17an, bilera izan zen UAGNrekin eta EHNErekin, eta Nafarroako Nekazaritzako Kooperatiben Bata-sunarekin, eta 2011ko lehenbiziko hiruhilekoan, nekazaritzako elikagaien sektoreko beste eragile batzuekin jarraituko da.

Jakinazten dizut agiri hori Europako Batzordearen webgunean dagoela eta edonork eskura dezakeela. Behar izanez gero, dokumentura iristeko esteka honakoa da:

http://ec.europa.eu/agriculture/cap-post-2013/communication/com2010-672_es.pdf

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetze-ko.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 10ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Dermatologia Zerbitzuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Tuterako Reina Sofía Ospitaleko Dermatologia Zerbitzuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentu-

ko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko abenduaren 23ko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Tuterako Reina Sofia Ospitaleko dermatologiako zerbitzuari buruz. Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

Tuterako Reina Sofia Ospitaleko Dermatologiako Zerbitzuaren plantilla 3 falkultatibok osatzen dute. 2009ko irailean horietako batek erretiroa hartu zuen, eta 2010eko ekainean, uztailean eta abuztuan soilik bete ahal izan da gaur arte erretiro hori, langabezian dermatologorik ez dagoelako.

Horri gehitu behar zaio aparteko orduak egiteari ezetza eman izana eta espezialitate horretako itxaronzerrenda etengabe hazi izana; horrenbes-

tez, 800 gaixoren kasuan zerbitzua kanpora ateratzea erabaki zen. Horretarako, 2010eko maiatzean akordio bat sinatu zen INDODERM, S.L. enpresarekin, 800 gaixo ingururentzako laguntza kanpokontsultaren bidez emateko.

Amaitu aurretik adierazi behar dizut badirela zenbait patologia ospitaletik kanpora kontrolatu edo kirurgiaren bidez tratatu ezin direnak; gaixo horiek dira zerbitzu publikoek artatu behar izan dituztenak, INDODERM, S.L. enpresak kontsulta batean diagnostikatu ostean.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 14an

Osasuneko kontseilaria: María Kutz Peironcely

Galdera, Kultura eta Turismo Departamentuan martxoaren 31 eta gero egin diren deialdiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Kultura eta Turismo Departamentuan martxoaren 31 eta gero egin diren deialdiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko abenduaren 23ko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak galdera egin du Kultura eta Turismo Departamentuan martxoaren 31 eta gero egin diren deialdiei buruz (PES-449). Hona Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

"Udal edo kontzejuenak diren gizarte eta kultur etxeak sortzeko", apirilaren 16ko 40/2010 Foru Aginduaren bidez onetsia.

- Legelari berriek eta kontu-hartzaile delegatuak adierazitako irizpide berrien arabera aldatu ziren deialdiak.

- Zuzenketa proposatu zuen alderdiak oinarriak bidal zekizkion eskatu zuen, aztertzeko eta zuzentzeko.

- Espedienteen izapideak has zitezten PSN-PSOEk eginiko akordioa martxoaren 15ean jaso zen, eta izapideak martxoaren 16an hasi ziren.

"Nafarroako udal eta kontzejuek arte eta kultur jarduerak batera antolatzeko", apirilaren 22ko 45/2010 Foru Aginduaren bidez onetsia.

- Legelari berriek eta kontu-hartzaile delegatuak adierazitako irizpide berrien arabera aldatu ziren deialdiak.

- Zuzenketa proposatu zuen alderdiak oinarriak bidal zekizkion eskatu zuen, aztertzeko eta zuzentzeko.

- Espedienteen izapideak has zitezten PSN-PSOEk eginiko akordioa martxoaren 15ean jaso zen, eta izapideak martxoaren 16an hasi ziren.

"Kultura bonua", apirilaren 22ko 46/2010 Foru Aginduaren bidez onetsia.

- Deialdi berria zenez, beste erkidego batzuetako bonuen azterketa bat jarri zen abian, eta

Nafarroako Gazteriaren Institutuarekin jarri ginen harremanetan azterlana amaitu eta laguntzaileak bilatzeko.

- Zuzenketa proposatu zuen alderdiak oinarriak bidal zekizkion eskatu zuen, aztertzeke eta zuzentzeko.

- Espedienteen izapideak has zitezen PSN-PSOEk eginiko akordioa martxoaren 15ean jaso zen, eta izapideak apirilaren 13an hasi ziren. Atzerapenaren arrazoia izan zen zuzenketa aurreikusitako gabeko problemak sortu zirela deialdiaren zenbait alderdiri dagokienez:

- Komunikazioko eta produkzioko lanen eta kostuen banaketa.

- Komunikazio kanpaina.

- Kultura bonuaren banaketa.

- Kultura bonuari buruzko webgune berariazkoa Gazteriaren Institutuarekin eta Modernizazioaren eta Administrazio Elektronikoen Zuzendaritza Nagusiko Modernizazio Atalarekin.

"Arte ikasketetan sakontzeko 2010eko bekak", maiatzaren 10eko 50/2010 Foru Aginduaren bidez onetsia.

- Legelari berriek eta kontu-hartzaile delegatuak adierazitako irizpide berrien arabera aldatu ziren deialdiak.

"Arte eta kultur entitateak", maiatzaren 13ko 53/2010 Foru Aginduaren bidez onetsia.

- Legelari berriek eta kontu-hartzaile delegatuak adierazitako irizpide berrien arabera aldatu ziren deialdiak.

Nafarroako Aurrekontu Orokorren exekuzioan oreka egon zedin eginiko planak kontusail honi eragin zion, zeina ez baitzen maiatzaren 7ra bitarte liberatu.

"Artea eta kultura", uztailaren 5eko 71/2010 Foru Aginduaren bidez eta uztailaren 20ko 75/2010 Foru Aginduaren bidez onetsia.

- Legelari berriek eta kontu-hartzaile delegatuak adierazitako irizpide berrien arabera aldatu ziren deialdiak.

- Zuzenketa proposatu zuen alderdiak oinarriak bidal zekizkion eskatu zuen, aztertzeke eta zuzentzeko.

- Espedienteen izapideak has zitezen PSN-PSOEk eginiko akordioa martxoaren 15ean jaso zen, eta izapideak martxoaren 16an hasi ziren.

Nafarroako Aurrekontu Orokorren exekuzioan oreka egon zedin eginiko planak kontusail honi

eragin zion, zeina ez baitzen erabat liberatu uztailera arte, PSN-PSOErekin negoziatu ondoren.

"Kultura, eskura", uztailaren 20ko 76/2010 Foru Aginduaren bidez eta abuztuaren 5eko 79/2010 Foru Aginduaren bidez onetsia.

- Zuzenketa proposatu zuen alderdiak oinarriak bidal zekizkion eskatu zuen, aztertzeke eta zuzentzeko.

- Espedienteen izapideak has zitezen eginiko akordioa martxoaren 15ean jaso zen, eta izapideak martxoaren 16an hasi ziren.

- Nafarroako Aurrekontu Orokorren exekuzioan oreka egon zedin eginiko planak kontusail honi eragin zion, zeina ez baitzen erabat liberatu uztailera arte, PSN-PSOErekin negoziatu ondoren.

Turismoko marketineko jardueretarako 2010eko laguntzen deialdia martxoaren 22ko 30/2010 Foru Aginduaren bidez onetsi zen, eta 2010-04-16ko NAO argitaratu zen (47. zk.).

Sektorearekin adostutako plangintza-lan bat da beharrezkoa, eta horrek denbora bat eskatzen du.

Nafarroako Aldizkari Ofizialak, argitaratzeko, bi asteko epe estandarra du; horri gehitu behar zaio foru agindua bidaltzeko behar izanzen denbora.

- 21/2010 Foru Agindua, martxoaren 5ekoa (2010eko apirilaren 5eko 42. NAO), elkarteek, toki entitateek eta partzuergoek turismoa garatzeko egiten dituzten jardueretarako 2010eko laguntzen deialdia onesten duena.

Ikus daitekeenez, hilabeteko tartea dago foru aginduaren sinaduraren eta argitalpen egunaren artean, aldizkari ofizialeko lan-pilaketaren ondorioz, dudarik gabe.

- 29/2010 Foru Agindua, 2010eko martxoaren 22koa (2010eko apirilaren 16ko 47. NAO) Q ziurtagiria lortzeko eta mantentzeko laguntzen deialdia.

Kasu honetan kontuan hartu behar da deialdi soil horren aurretik beste bat egin behar izan zela, oso konplexua; hain zuzen ere, turismo jardueretako doako bisitetarako eta deskontuetarako laguntzen 2010. urteko deialdia, martxoaren 17ko 28/2010 Foru Aginduaren bidez onetsi zena (2010eko martxoaren 26ko 38. NAO).

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 17an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, Jakiteko “Kultur Turismoari buruzko Plan Zuzendaria. Elizak eta monumentuak irekitzeko programa” kontusaila zein ekintzatarako erabili den.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Romás Felones Morrás jaunak galdera egin du Jakiteko “Kultur Turismoari buruzko Plan Zuzendaria. Elizak eta monumentuak irekitzeko programa” kontusaila zein ekintzatarako erabili den.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko abenduaren 23ko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak galdera egin du jakiteko “Kultur Turismoari buruzko Plan Zuzendaria. Elizak eta monumentuak irekitzeko programa” kontusaila zein ekintzatarako erabili den, nola baloratzen duen Nafarroako Gobernuak programaren gauzatea eta, kontuan hartuta kontusail horrek 2011n ere jarraituko duela, zer alderditan aldatu nahi duen (10PES-691). Hona hemen Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna.

2010ean, Done Jakueren urtea izan baitzen, Bideko elizak irekitzeak lehentasuna izan zuen, bai bide frantseseko elizak (Zangozatik sartzen den adar aragoiarrekoak barne), bai Baztango eta Ebroko bideetakoak ere. Done Jakue Bideko 9 monumentu ireki dira, eta lehendik beste 23 zeuden irekita; hala, guztira, 32 izan dira 2010ean irekitako eliza eta monumentuak.

– Bide frantseseko zazpi eliza:

- San Migel eliza, Lizarran.
- San Pedro eliza, Garesen.
- San Roman eliza, Ziraukin.
- Jasokunde eliza, Villatuertan.
- San Pedro eliza, Oibarren.
- San Martin eliza, Izkon.
- Natibitate eliza, Elon.

– Ebroko bideko eliza bat.

- Magdalena eliza, Tuteran.

– Baztango bideko eliza bat.

- San Salvatore monasterioa, Urdazubin.

Bederatzi eliza horiek jendearentzat irekita egon dira, etenik gabe, gutxienez ekainaren 15etik irailaren 15era bitarte. Ekainean, 16 egun; abuztuan, 31 egun; uztailan, beste 31 egun; eta irailean 15 egun; hau da, guztira, 93 egun. Gutxieneko ordutegia hau izan da: 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Denerako 40.000 euroko aurrekontua izan da, honela banatuta:

– 33.480 euro izan dira honakoek eragindako gastuetarako: elizak irekitzea, zaintzea, garbitu eta bisitetarako egokitzea, eta argiztapena.

– 6.520 euro izan dira 55.000 eskuorri estandarizatu argitaratzeko. Bisitatzeakoak diren Done Jakue Bideko 32 monumentu erakusten dituen orri tolesgarri bat egin da. "Done Jakue Bideko Ondare irekia" (bertan, hitzarmenaren barruan aurten irekitzen diren 9 elizez gain, Done Jakue Bidean oso garrantzitsuak diren eta jadanik erabilera turistikoa bazuten beste batzuk ere sartu dira).

Programan sarturik dauden elizek 37.609 bisita izan dituzte guztira. Lortutako bisitari-kopurua ikusita, ekintza oso positibotzat jo daiteke.

Asmoa da nabarmentzea zenbait monumenturen aukera turistikoak, halako eran non Gobernuaren laguntzarik gabe funtzionatzeko modua izanen baitute.

Azken urteotan pilatutako esperientziak aukera eman digu egiaztatze badiela zenbait eliza eta monumentu turistek bisitatzen ez dituztenak, nahiz eta interesgarriak izan erlijioaren edo kulturaren ikuspuntutik, eta beste batzuk aldiz emaitza egokiak lortu dituztela. Horregatik, urtero aldatu egiten da egin nahi den eskaintza.

2011rako, kontuan izan dugu Done Jakue urtea bukatu dela. Horrek dakarrena da beste eliza batzuk sartzea. Era berean, kontuan izan behar da zein diren eliza batzuetako zirkunstantziak, orain arte ez badute ere programan parte hartu, aintzat

hartu behar direlako beren egoera hobetzeko; hori gertatzen zaio, adibidez, Santa Maria Eunatekoari.

Eskuorriak argitaratzeari dagokionez, uste dugu komeni dela orri horiek argitaratzen jarraitzea, onarpen handia baitute.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 17an

Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

Galdera, 2009ko uholdeek ukitutako Bidasoako arroko udalerrietan aitortutako kalteei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du 2009ko uholdeek ukitutako Bidasoako arroko udalerrietan aitortutako kalteei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko azaroaren 8ko 107. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko Maiorga Ramírez Errok galdera egin du Bidasoako arroan eta Iruñean 2009ko otsailaren 11n eta 12an izandako uholdeen ondorioz gertatu ziren kalteei buruz. Horri dagokionez adierazi behar dizut Toki Administrazioiko Departamentuan ondoko eskariak jaso direla eta ondotik zehazten den erantzuna eman zaiela:

1. Donamariako Udala

Eskatutako obra: Antxonekobordako bidearen konponketa. Inbertsioa: 23.847,65 euro. Larrialdi-irizpideari jarraikiz egina.

Toki Administrazioiko kontseilariaren ekainaren 14ko 255/2010 Foru Aginduaren bidez, aipatu obra hori 2009tik 2012ra bitarteko Toki Inbertsioen Planean sartu zen, urriaren 24ko 16/2008 Foru Legean ezarritakoarekin bat, 16.693,36 euroko ekarpena eginez.

Toki Administrazioiko zuzendari nagusiaren abuztuaren 25eko 543/2010 Ebazpenaren bidez baimendu zen aipatu diru-kopuru hori ordaintzea.

2. Lesakako Udala

Eskatutako obra: Lesaka-Igantzi errepedeko luzien konponketa. Inbertsioa: 50.781,55 euro. Larrialdi-irizpideari jarraikiz egina.

Toki Administrazioiko kontseilariaren ekainaren 14ko 289/2010 Foru Aginduaren bidez, aipatu obra hori 2009tik 2012ra bitarteko Toki Inbertsioen Planean sartu zen, urriaren 24ko 16/2008 Foru Legean ezarritakoarekin bat, 35.547,09 euroko ekarpena eginez.

Toki Administrazioiko zuzendari nagusiaren abuztuaren 4ko 490/2010 Ebazpenaren bidez baimendu zen aipatu diru-kopuru hori ordaintzea.

3. Lesakako Udala

Eskatutako obra: Biurranako auzoko bideko luzien konponketa. Inbertsioa: 23.743,05 euro. Larrialdi-irizpideari jarraikiz egina.

Toki Administrazioiko kontseilariaren ekainaren 16ko 290/2010 Foru Aginduaren bidez, aipatu obra hori 2009tik 2012ra bitarteko Toki Inbertsioen Planean sartu zen, urriaren 24ko 16/2008 Foru Legean ezarritakoarekin bat, 16.620,14 euroko ekarpena eginez.

Toki Administrazioiko zuzendari nagusiaren abuztuaren 4ko 491/2010 Ebazpenaren bidez baimendu zen aipatu diru-kopuru hori ordaintzea.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 18an

Toki Administrazioiko kontseilaria: Amelia Salanueva Murguialday

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak aurreikusia duen Aezkoa ibarrean, Abodiko ipar eskiko pistekin, egitea Erronkarin Territorio Roncalia, S.L. sozietate publikoa deitutakoak egindakoaren antzeko zerbait.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko ea Nafarroako Gobernuak aurreikusia duen Aezkoa ibarrean, Abodiko ipar eskiko pistekin, egitea Erronkarin Territorio Roncalia, S.L. sozietate publikoa deitutakoak egindakoaren antzeko zerbait.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko abenduaren 17ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 24an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak aurreikusia ote duen zerbait egitea Abodiko ipar eskiko pistetan. Hona hemen Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren erantzuna:

Hasteko eta behin, argitu behar dut eski pista horiek Zaraitzu ibarrean daudela, eta ez, ordea, Aezkoan, galderan esaten den bezala.

Bestalde, adierazten dizut departamentu honek ez duela eskumenik kirolaren edo turismoaren arloan.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 19an

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Amelia Salanueva Murguialday

Galdera, Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden 35 urtetik beherako gazteen kopuruari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden 35 urtetik beherako gazteen kopuruari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko urtarrilaren 10eko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak informazioa eskatu du 2010ean Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden 35 urtetik beherako gazteen kopuruari buruz (PES-693/10). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Egindako eskaerak bide ematen du aurretiazko gogoeta bat egiteko Nafarroa Baik ezartzen duen "gazte" kontzeptuari buruz, 35 urtera arte luzatzen

baitu. Planteamendu horren aurrean, ondokoak aurki ditzakegu:

– Nazio Batuen Batzar Nagusiaren arabera, 15 eta 24 urte bitarteko pertsonak dira gazteak.

– Lanaren Nazioarteko Erakundeak irizpide bera aplikatzen du.

– Estatistikaren Institutu Nazionalak hiru hila-beteetan behin egiten duen Biztanleria Aktiboaren Inkestak 16 urte (lanean hasteko gutxieneko adina) eta 24 urte bitartekoak sartzen ditu gazteen artean.

– Eurostat, Europako Batzordeko estatistika bulegoa, ildo harmonizatu horri lotzen zaio Bata-suneko herrialde guztietan bere lan-txostenak taxutzerakoan.

– Lan Ministerioak kontzeptu hori bera garatu zuen erregistratutako langabezia-datuak taxutze-rakoan, horrek ezartzen baitu autonomia erkide-goan lan-ildoak kasuan kasuko erkidegoan erregist-ratutako langabezia-datuak taxutzean.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 24an

Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguko kontseila-ria: José María Roig Aldasoro

**35 urtetik beheitikoen artean 2010ean erregistratutako langabezia,
sexuaren eta adin-tarteen arabera.**

2010. urtea	Sexua	20 urtetik beheitikoak	20 eta 24 bitartekoak	25 eta 29 bitartekoak	30 eta 34 bitartekoak	35 urtetik beheitikoak, guztira
urtarrila	Gizonezkoak	698	2.349	3.058	3.373	9.478
	Emakumezkoak	422	1.772	2.708	3.153	8.055
otsaila	Gizonezkoak	712	2.393	3.073	3.407	9.585
	Emakumezkoak	472	1.809	2.693	3.139	8.113
martxoa	Gizonezkoak	726	2.399	2.991	3.375	9.491
	Emakumezkoak	489	1.792	2.684	3.111	8.076
apirila	Gizonezkoak	705	2.182	2.766	3.226	8.879
	Emakumezkoak	452	1.682	2.570	3.042	7.746
maiatza	Gizonezkoak	742	2.151	2.664	3.082	8.639
	Emakumezkoak	440	1.652	2.505	3.036	7.633
ekaina	Gizonezkoak	820	1.921	2.507	2.947	8.195
	Emakumezkoak	457	1.515	2.432	2.991	7.395
uztaila	Gizonezkoak	778	1.895	2.507	2.957	8.137
	Emakumezkoak	415	1.536	2.426	3.014	7.391
abuztua	Gizonezkoak	706	1.934	2.500	2.997	8.137
	Emakumezkoak	408	1.588	2.458	2.989	7.443
iraila	Gizonezkoak	728	2.064	2.550	2.932	8.274
	Emakumezkoak	440	1.781	2.537	3.038	7.796
Urria	Gizonezkoak	738	2.123	2.625	2.930	8.416
	Emakumezkoak	458	1.862	2.631	3.030	7.981
azaroa	Gizonezkoak	749	2.099	2.636	2.947	8.431
	Emakumezkoak	432	1.810	2.642	3.074	7.958
abendua	Gizonezkoak	679	2.048	2.746	3.198	8.671
	Emakumezkoak	382	1.652	2.515	3.055	7.604

Iturria: Nafarroako Enplegu Zerbitzua

Galdera, N-121-A errepideko zenbait tartetan istripu gehiago ez gertatzeko hartutako neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du N-121-A errepideko zenbait tartetan istripu gehiago ez gertatzeko hartutako neurriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko urtarrilaren 10eko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du N-121-A errepideko istripu-kopuruari buruz. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazioko kontseilariaren erantzuna:

Herri Lan, Garraio eta Komunikazioko Departamentuak Nafarroako Errepideen Sarean egiten dituen jarduketak Nafarroako errepideen sareko istripu ugariko tarteetarako jarduketa planen bidez gauzatzeko dira. Plan horiek urtero-urtero egiten dira, 1998tik aitzina. 2010ean XI. Plana onetsi zen, 2010etik 2012ra bitartekoa.

Plan horiek egiteko oinarria izan ohi da eguneko istripu-kopuru bereziki handia gertatzen den errepide-tarteen ebaluazio estatistikoa. Horretarako, ondoko faseak bete ohi dira:

– Estatistikoki istripu-kopuru handiena gertatzen den errepide-tarteen karakterizazioa; hemendik aurrera, "Istripu Ugariko Tarte" izena emanen zaie.

– Errepide-tarte guzti-guztien azterketa zehatza, istripuak eragin dituzten arrazoiak aztertze

aldera eta, kasua bada, errepideek izan duten eragin-maila ezartze aldera.

– Egon litezkeen akatsak zuzentzeko xedez jarduketak proposatzea (ahal dela, kostu txikikoak), hartara segurtasun-maila handiagoa lortuko baita eremu horretan, edo, bestela, bertako segurtasun pasiboa hobetu.

Nafarroako Gobernuak 1998tik aitzina garatu dituen 10 planetan, istripu ugariko edo arriskutsuak izan litezkeen 113 tartetan esku hartu da. 2012an XI. Plana bukatzen denean istripu ugariko edo arriskutsuak izan litezkeen 127 tarte egonen dira zuzenduta. Gure ustez, tresna hori faktore erabakigarria izanen da Europar Batasunaren helburua lortzeko; alegia, gure errepideetan hildakoen kopurua % 50 murrizteko 2000tik 2010era. Izan ere, 2000n 99 hildako izan ziren Nafarroako Errepideen Sarean, eta 2010ean, berriz, 34 hildako; hau da, helburu hori 2006an erdietsi zen, ezen ez 2010ean. Bitarte horretan 113 tartetan esku hartu da, gure webgunean ageri den laburpen-taulan azaltzen den bezala.

2010eko XI. Planean ez da ageri istripu ugariko tarterik N-121-A errepidean. Arriskutsua izan litekeen tarte bakar bat ageri da Sunbillako bidegurutzean; horren proiektua 2011n idatziko da, maila ezberdinetako lotune bat eginda.

2012an egiten den XII. Planean ikusiko da ea errepide horretan istripu ugariko edo arriskutsua izan litekeen tarterik ote dagoen.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 24an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazioko kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, abeltzainei esnearengatik ordaintzen zaien prezioak esne-ustiategiak bideragarri egin ditzan Nafarroako Gobernuak bultzatutako neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du abeltzainei esnearengatik ordaintzen zaien prezioak esne-ustiategiak bideragarri egin ditzan Nafarroako Gobernuak bultzatutako neurriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko urtarrilaren 10eko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko otsailaren 1ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Abeltzainei esnearengatik ordaintzen zaien prezioak esne-ustiategiak bideragarri egin ditzan Nafarroako Gobernuak bultzatutako neurriei buruz (PES-694). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Esne-ekoizleek jasotzen duten prezioa faktore erabakigarria da bideragarritasunerako, baina ez bakarria. Beste funtsezko faktore bat da ustiategien kudeaketa tekniko-ekonomikoa, eta, horri gagozkiola, tamaina, elikadura-inputak, osasuna, ugaltze-kudeaketa, edo higienarako ezarritako kalitate-sistemak. Faktore horien konbinazioak egin dezake esnearen prezio berarekin ustiategi batzuk bideragarriak izatea eta beste batzuk, berriz, ez.

Aurreko ideia-aren indargarri, kontuan izan behar da ekoizleek jasotzen duten prezioak formula bati erantzuten diola –industria edo erosle bakoitzak berea du–, zeinaren osagarri baitira oinarritzko prezioa, kalitateagatik prima bat, kondizio higieniko-sanitarioengatik prima bat, eta, industria zein den, prima bat bolumenagatik. Horrela, ba, kudeaketa tekniko-sanitarioa eta tamaina bideragarritasun-faktoreak dira ez soilik eraginkortasunari dagokionez; prezioan ere eragin zuzena dute.

Horregatik, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren ekintzek aipatu diren faktore guztiak ere hartzen dituzte.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ustiategien bideragarritasun ekonomi-

korako funtsezkoak diren bi ildo azpimarratzen ditu: kalitate higieniko-sanitarioa, batetik, eta, bestetik, produktibitatearen hobetzea eta ustiategiaren tamaina.

Kalitate higieniko-sanitarioari dagokionez, ITG Ganaderok aholkularitza ematen die ustiategiei. Era horretan, Espainia osoko kalitaterik oneneko esnea dago Nafarroan, eta horrek eragin zuzena du abeltzainak jasotzen duen diruan. Aholkularitza-zerbitzu hori ITG Ganaderori emandako transferentzietatik finantzatzen da gehienbat, eta laguntza zuzena da abeltzainarentzat, gastu gutxiago eta sarrera gehiago baititu.

Ustiategien produktibitatea eta tamaina hobetzeari dagokionez, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak esne-behien sektoreari eman dizkio hobekuntza-planen eta lehen instalazioen laguntza gehien azken urteotan. Ustiategiak batzea eta teknifikatzea sustatu da (jezteko eta elikatze-robotak, etab.), eta une honetan batez beste 700.000 litrotik gora ekoizten da, 243.000 litroko batez besteko nazionalaren aldean. Horri esker, ustiategien bideragarritasun ekonomikoa eta bizi-kalitatea hobea da eta esneagatik prezio hobea kobratzen dute, tamainagatik primen bidez.

Kanpaina honetan esne-behien abeltzaintzako bi laguntza-lerro berri jarri dira martxan, FEAGAk finantzatuta. Ekonomikoki ahulagoak diren zonen desabantailak konpentsatu ahal izateko esne-behien abeltzainei emandako laguntzak dira, eta kalitate-sistema aitortuko esnekientzako laguntzak. Departamentuak eginiko ekarpenei esker, ekoizpen integratua kalitate-sistema aitortuz hartu da.

Departamentuaren ustez, esne-ekoizpena arautu eta antolatu egin behar da, eta esne-ekoizleek balio-katean duten posizioa indartu, horiek aukera benetakoak izan ditzaten prezioak negoziatzeko.

Ildo beretik, Europako Batzordea tramitatzen ari da erregelamendu proiektu bat ekoizleen organizazioek, baldintza jakin batzuetan, baimena izan dezaten prezioak modu kolektiboan negoziatzeko. Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioa ere errege-dekretu proiektu bat ari da tramitatzen, eta, ezartzen duenez, ekoizleek eta

industriek kontratuak sinatu beharko dituzte esne gordinaren salerosketarako.

Arau-esparru berri horrek dakartzan aukera guztiak erabiltzearen, Departamentuak beharrezkotzat jo du presako neurriak hartzea esne-ekoizleen organizazioak bultzatzeko. Ekimena jarri da jada abian ITG Ganaderoko teknikari-talde batekin. Talde hori hasi da lanean eta ekimen honen dinamizatzaile gisa arituko da: esne-ekoizleen organizazioak abian jartzeko beharrezkoa gertatzen den laguntza teknikoa, juridikoa eta kudeaketakoa emanen du.

Laburbilduz, Departamentuaren jarduketan helburua da esne-ekoizleei posizioa hobetzea abeltzaintzako ustategien bideragarritasun ekonomikoan eragiten duten alderdi guztietan.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 27an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, Nafarroako epaitegien Iruñeko eraikina handitzeko obren egoerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Nafarroako epaitegien Iruñeko eraikina handitzeko obren egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko urtarrilaren 10eko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko otsailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du Iruñeko Justizia Jauregiko obrei eta zerbitzuen modernizazioari buruz (PES-697). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariaren erantzuna:

A.- Iruñeko Justizia Jauregia berriki handitu da, eta handitze horren helburuak izan dira, batetik, egoitza Iruñean duten organo judizialen beharrei aurre egitea, eta, bestetik, bulego judizialen antolamendu berria modu efizientean ezartzea eta hedatzea.

Behin 2010eko abenduan handitze-obrak amaituta, eraikinaren barruan epaitegiak berrantolatatzeko plan bat onetsi da, zeina Nafarroako Auzitegi Nagusiarekin eta Fiskaltza Nagusiarekin adostu baita. Berrantolamenduaren helburua da solairu berean biltzea arlo bereko organo judizia-

lak, bai eta epaiketa-aretoak eraikineko leku bere-tan jartzea ere, herritarrari eman beharreko zerbitzuak errazteko.

Behin arlo bereko epaitegiak bilduta, bulego judizial berriaren (BJB) inplantazio progresiboa modu ordenatuan egiten ahalko da; langileak lekuz aldatuko dira, eta dituzten eginkizunetan ere aldaketak izanen dituzte.

Argitu behar da BJBren inplantazioa gutxikagutxika egingen dela, eta ez egun batetik bestera. Prozesua amaitzean, eragina Justizia Administrazioiko langile guztiengana iritsita egonen da .

Horri dagokionez, zehaztu beharra dago uneotan abian dela bulego judizialaren egitura berria onetsiko duen foru dekretua onesteko prozesua; alegazioak aurkezteko epea irekitzearekin interesdun guztiei eman zaie parte hartzeko aukera.

Horrela, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2010eko abenduaren 30ean, Iruñean egoitza duten organo judizialentzako Orotariko Gaien Zerbitzu Orokor Prozesalaren egitura. Hori izanen da Iruñean funtzionatzen hasiko den BJBren lehenbiziko zerbitzu orokorra. Abian jartzeko, obrak egiten ari dira Iruñeko Justizia Jauregiko beheko solairuan; obra horiek hurrengo asteetan amaituko dira.

B.- Espediente digital judizialari dagokionez, aipatu behar da prozesu horren bidez espediente-ko informazio digitala gehitzen dela Avantius kudeaketa prozesaleko aplikazioan, halako moduz non, prozesuaren amaieran, papera erabat desagerrarazteko modua egonen den.

Gaur egun, dagoeneko, organo judizial guztietan sortzen den informazio guztia formatu elektronikoa dago, eta, uneotan, abian da proba pilotu bat jakinarazpen elektronikoarekin eta abokatuek, prokuradoreek eta lan-harremanetako graduatuek idazkiak modu elektronikoa aurkezteko aukerarekin. Urrats horrek ekarriko duena da profesional horiek aurkezten dituzten idazkiak (Justizia Administrazioan sartzen diren gehienak), gutxi barru, formatu digitalean sartuko direla.

Aurten, era berean, proiektu bat enkargatu da dokumentu eskaneatuak gehitu ahal izateko espediente digitalean; helburua da Justizia Administrazioan paperean aurkezten diren dokumentuak eskaneatu eta modu digitalean gehitu ahal izatea espedienteari. Pausu bat gehiago izanen da espediente digital judizialera iristeko bidean.

Ez dago azpimarratu beharrik funtzio horiek integratuta daudela Avantius kudeaketa prozesaleko aplikazioan, eta, beraz, ez dago hitz egiterik "dokumentu-kudeatzaileak" erabiltzeari buruz.

Gogoratu beharra dago, orobat, aipatu dena, hau da, aurten ezartzekoa dela profesionalen webgunearen bidezko jakinarazpen elektronikoa, abokatuentzat, prokuradoreentzat eta lan-harremanetako graduatuentzat; horrek gaur egungo sistema ordeztuko du, gaur paperean eta postaz –behar diren segurtasun-neurriekin– egiten baitira jakinarazpen horiek.

C.- Lexnet sistemari dagokionez, errepikatu beharra dago, aipatu bezala, Nafarroan hautatu den bidea izan dela belaunaldi berriko jakinarazpen elektronikoko sistema propio bat garatzea,

Avantiusen integratua, zeinak asko errazten baitu bai Justiziako funtzionarioen lana, bai profesionalena. Lexnet, aldiz, jakinarazpen-sistema ez hain aurreratu bat da, eta ez dago Avantiusen integratua; horregatik baztertu da haren ezarpena Nafarroan.

Modu paraleloan, eta Asclepios programari dagokionez, aipatu behar da Nafarroako Auzitegi-ko Medikuntzaren Institutuko (NAMI) arduradunek, teknikari informatikoekin eta organo judizialen ordezkariekin batera azterketa oso xehe bat egin ondoren, aukeratu zutena izan zela NAMIrentzat berariaz gara zedila Avantiusen modulu bat. Duten irudipena da NAMIn kudeaketa Avantiusekin integratzeak abantaila ugari izanen lituzkeela bai NAMIn funtzionamendurako, bai organo judizialen funtzionamendurako; horrela, izan ere, denek datu-base berarekin eta aplikazio berarekin lan egingen lukete. Horrela, aurten, garapen-proiektua amaituta egonen da eta abian jarriko da.

D.- Nafarroan eta/edo gutxienez Iruñean gauzatzen diren prozesu judizialean posta arruntez egiten diren jakinarazpenen estatistikari buruz, hori galdetzen baita, adierazi behar da datuok prozesu judizial horien parte direla eta Nafarroako Gobernuak ez duela horien gaineko eskumenik.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betez.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 26an.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria:
Javier Caballero Martínez

Galdera, 2011ko aurrekontuetako “Lurzoruaren Foru Bankuaren Salmenta” izeneko kontusailarekin zehazki hartuko diren neurriei eta egingen diren ekimen edo salmentei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du 2011ko aurrekontuetako “Lurzoruaren Foru Bankuaren Salmenta” izeneko kontusailarekin zehazki hartuko diren neurriei eta egingen diren ekimen edo salmentei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko urtarrilaren 10eko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko otsailaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du “Lurzoruaren Foru Bankuaren Salmenta” izeneko kontusailari buruz (PES-696). Hona hemen Nafarroako Gobernuako eledun eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariaren erantzuna:

Viviendas de Navarra, S.A-ri aurreikusita dago saltzea Noaingo B-3, B-4, C-2 unitateetako eta B-2 unitateko lurzoru publikoko lurzati hauek:

1., 2., 4., 5. eta 3. lurzatiaren %61,28.

Iruñean, 2011ko urtarrilaren 8an

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilaria: Amelia Salanueva Murguialday

Galdera, menpekotasunen bat duten pertsonentzako arreta-zerbitzua finantzatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du menpekotasunen bat duten pertsonentzako arreta-zerbitzua finantzatzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2010eko abenduaren 23ko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko otsailaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak zer zuzemen egin dituen Estatuari mendekotasunaren arretak eragiten dituen gastuen % 33 eskatzeko

(PES 688-10). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak sarritan eskatu du Mendekotasunaren Legetik heldu diren beharrei aurre egiteko Estatuak handitu dezala mendekotasunera bideratutako kreditu orokorra.

Alde horretatik, garrantzitsua da azpimarratzea ez dela gauza bakana Nafarroako Gobernuak mendekotasunaren arreta-sistemaren finantzaketaren inguruan egiten duen erreklamazioa (finantzaketak behar adinakoa izan behar duela); eta, era berean, ez da bakana Estatuaren ekarpena %33ko estaldura izan dadin erdieste, lorpen hori autonomia-erkidego guztiek parte hartzen duten dinamika zabal batean ulertu behar delako.

2008tik hona, erreklamazio hori honela egin dugu zehazki:

Aldebiko bileretan, eta modu pertsonalean:

=> 2008ko maiatzaren 26ko bilera; parte-hartzaileak: Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria, M^a Isabel García Malo, eta Hez-

kuntza, Kirol eta Gizarte Politikako ministroa, Mercedes Cabrera.

=> 2009ko urriaren 6ko bilera; parte-hartzaileak: Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria, M^a Isabel García Malo, eta Osasun eta Gizarte Politikako ministroa, Trinidad Jiménez.

Lurralde kontseiluetan izandako parte-hartzeak:

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilari M^a Isabel García Malok Mendekotasunaren Lurralde Kontseiluan behin eta berriz salatu du beharrezkoa dela Estatuak finantzaketa handiago ematea eta finantzaketa hori denboran zehar planifikatzea.

Gutun bidez:

Gainera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilari M^a Isabel García Malo andreak hiru gutun bidali dizkie aurreko ministroei (Mercedes Cabrerari eta egungoari, hau da, Trinidad Jiménez), eta horietan adierazi die kezkatuta dardela Mendekotasun Legearen aplikazioari buruzko zenbait konturengatik; besteak beste, Estatuaren finantzaketagatik.

Hauek dira bidalitako eskutitzak:

- 2008ko maiatzaren 27koa; bidaltzailea Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria izan zen, M^a Isabel García Malo, eta hartzailea Hezkuntza, Kirol eta Gizarte Politikako ministroa, Mercedes Cabrera andrea.

- 2009ko martxoaren 12koa; bidaltzailea Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria izan zen, M^a Isabel García Malo, eta hartzailea Hezkuntza, Kirol eta Gizarte Politikako ministroa, Mercedes Cabrera andrea.

- 2009ko ekainaren 25ekoa; bidaltzailea Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria izan zen, M^a Isabel García Malo, eta hartzailea Osasun eta Gizarte Politikako ministroa, Trinidad Jiménez andrea.

Bestalde, foru gobernuak, jendaurrean, bai Gizarte Gaietako kontseilariaren bidez bai Nafarroako Gobernuaren lehendakariaren bidez, Estatuaren finantzaketa txikiagatik kezkatuta dagoela adierazi du Ministerioarekin egindako bestelako bilera batzuetan; bilerak, besteak beste, hauek izan dira:

- Mendekotasunari eta Bizi Kalitateari buruzko Nazioarteko II. Kongresua; Iruñean egin zen, 2009ko maiatzean.

- Mendekotasunari buruzko E Planeko hitzarmen berezia sinatu behar zela-eta 2009ko urriaren 13an Iruñean egindako bilera.

Bestalde, UPNko taldeak zenbait urte daramatza (2009 eta 2010) Estatuako aurrekontu orokorre zuzenketak aurkezten. Eta aurkeztutako zuzenketak bi izan dira mendekotasunaren arreta-sistema Nafarroan aplikatzeko; urte batean 13 milioi euroko zuzenketa bat aurkeztu zen eta hurrengo urtean 14 milioi euroko beste bat.

Nafarroako Gobernuak gai honi buruz eskatzen duena da Estatuak handitu dezala mendekotasunerako duen kontusaila, eta behar den dirua jar dezala legea benetan aplikatu ahal izateko. Gaur egun, Estatuak aurrekontuan jartzen duen dirua gutxiegi da nabarmen; ez da zenbateko egokia Mendekotasunaren Legeak ezartzen dituen presazio eta zerbitzuetarako, baina hori eta Nafarroako Gobernuak Hitzarmen Ekonomikotik kendu beharrekoa ez dira gauza bera.

Hitzarmen Ekonomikoa aurki egonen da amaitua eta prest, azken fasean sartua baitago uneotan, eta bertan ezartzen da gastu komunetatik zer zati dagokion ordaintzea Nafarroari. Memento honetan, egozpen-indizea % 1,6koa da. Problema, edozein modutan, ez da Hitzarmenetik kentzen den zenbatekoa, baizik eta Estatuak mendekotasunaren arretarako guztira jartzen duen diru kopurua.

Figueras andreak ongi dakienez, Nafarroako Gobernuak, Hitzarmen Ekonomikoaren bidez, 1,6 deskontatzen du, baina, ulertuko du ez dela kopuru bera ateratzen 1.000 euroko diru-kopuru batetik deskontatzen bada % 1,6, edo ehuneko hori 10.000 euroko diru-kopuru batetik deskontatzen bada. Ikusten denez, ehunekoa bera da, baina, Estatuak mendekotasunaren arretarako guztira zenbat diru jartzen duen, ateratzen den zenbatekoa diferentea da. Beraz, benetako problema da Estatuak azterketa erreal bat egin behar duela jakiteko zer kostatzen den mendekotasunaren arreta, eta handitu egin behar duela, ondorioz, mendekotasunaren arretarako jartzen duen kontusail orokorra, eta ez alderantziz, 2011n egin duen moduan, non % 5 gutxiago jarri baitu aurrekontuan.

Iruñean, 2011ko otsailaren 11n

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

Galdera, Noingo aireportuan “low cost” hegaldiak egoteko Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Noingo aireportuan “low cost” hegaldiak egoteko Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko otsailaren 3ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Noingo aireportuko terminal berria inauguratu zenetik “low cost” hegaldiak egoteko Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruz. Hona Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

Aireko sektoreak oro har, eta konpainiek bereziki, beren historiako unerik okerrenetakoa pasa dute azken urteotan. Merkatuaren gainbehera, eta bidaiari-kopuruaren jaitsiera, azken hilabeteotan bakarrik ematen du hasi dela konpontzen. Low cost erako aire-operatzaileek, pizgarri bidez ezarri ziren autonomia erkidegoetan, ez dute ongi erantzun, gehienetan.

Desiragarria litzateke konpainiak gure merkatura lortu nahian lehian ibiltzea, baina gure errealitatea ez da hori. Erkidego txikia gara, eta, behin-behinean, ez ditugu aire-konpainiek beren operazioetan bilatzen dituzten ezaugarri edo bal-

dintza turistiko tipikoak: eguzkia eta ondartza, funtsean.

Nahiz eta Nafarroako Gobernuak ez duen inongo eskumenik aire-garraioari dagokionez, ezta arlo horretako azpiegituri dagokionez ere, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, komunikazio-bide guztiak indartzeko duen interesagatik, aire-komunikazioak ere bai besteak beste, elkarrizketak izan ditu beti eta modu jarraituan zenbait konpainiarekin, azpiegitura berriak eraiki aurretik nahiz ondotik.

Terminal berria inauguratzearekin, bereziki, bidaiariari ematen zaion zerbitzuaren kalitatea hobetu da, baina terminal hori inauguratu izanak ez du eraginik, berez, operatzaileek ibilbide berri bat ezartzea edo ez ezartzea erabakitzearekin.

Gure bokazioa da nazioarteko ibilbideak sustatzea Nafarroan, aktibo garrantzitsua izan baitaitezke eta, hala, onuragarria gertatu herritarrentzat, enpresentzat eta gizarte osoarentzat. Baina egungo krisi ekonomikoko egoeraren eta adierazitako faktoreen ondorioz, jarrera zuhurra eta arduratsua dugu; hala, konpainiekiko gure harremanei eutsi diegu eta aukera egokiaren bila gabilitza baloratzeke, behin merkaturak gora egiten hasten denean, zer baliabide publiko jar litezkeen iraukorra izan litekeen ibilbide bat ezartzeko.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateratuko 192.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2011ko otsailaren 11n

Herri Lan, Garraio eta Komunikazioko kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

Galdera, energia-azpiegiturei eta azpiegitura horiek ingurumenean duten eraginari dagokienez eta, zehazki, 400 kV-ko eta 220 kV-ko goi tentsio-ko lineek Foru Komunitatean duten ingurumen-eraginari dagokionez Nafarroako Gobernuak darabilen politikari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du energia-azpiegiturei eta azpiegitura horiek ingurumenean duten eraginari dagokienez eta, zehazki, 400 kV-ko eta 220 kV-ko goi tentsio-ko lineek Foru Komunitatean duten ingurumen-eraginari dagokionez Nafarroako Gobernuak darabilen politikari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko otsailaren 3ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak gal-

dera egin du energia-azpiegiturei eta azpiegitura horiek ingurumenean duten eraginari dagokienez eta, zehazki, 400 kV-ko eta 220 kV-ko goi tentsio-ko lineek Foru Komunitatean duten ingurumen-eraginari dagokionez Nafarroako Gobernuak darabilen politikari buruz (PES-4). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Linea elektrikoaren ingurumen-eraginak Estatuko Administrazioak ebaluatzen ditu edo Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, eragin horiek baimentzeko prozeduren barruan eta Ingurumen Eraginaren Ebaluazioaren legezko iza-pideekin.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2011ko otsailaren 17an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, hondakinen arloko Nafarroako politika orokorrari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du hondakinen arloko Nafarroako politika orokorrari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko otsailaren 3ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du hondakinen arloko Nafarroako politika orokorrari buruz (PES-5). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Hondakinen arloko Nafarroako politika orokorra da Nafarroako Hondakinen Kudeaketa Integratua-ren Planean ezarritakoa; plan hori Nafarroako

Gobernuak onetsi zuen 2010eko abenduaren 27ko erabaki baten bidez.

Plan horrek bere azpiprogramak ditu, non 2010-2020 epean aplikatu beharreko neurriak ezartzen baitira.

Galderarekin zerikusi handiena duten azpiprogramak honakoak dira:

4.2.- Hondakin arriskutsuen azpiprograma.

4.8.- Eraikuntzako eta eraispenetako hondakinen azpiprograma.

4.11- Hondakin industrial ez arriskutsuen azpi-programa.

Informazio hori guztia, osorik eta xehetasun guztiakin, Interneten ere badago (www.pigrn.navarra.es)

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2011ko otsailaren 17an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Galdera, mendien antolamenduari, garapenari eta babesari dagokienez, Natura 2000 Sareko eremuei dagokienez eta BILei dagokienez Nafarroak darabilen politika orokorrari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du mendien antolamenduari, garapenari eta babesari dagokienez, Natura 2000 Sareko eremuei dagokienez eta BILei dagokienez Nafarroak darabilen politika orokorrari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2011ko otsailaren 3ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2011ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du energia-azpiegiturei eta azpiegitura

horiek ingurumenean duten eraginari dagokienez eta, zehazki, 400 kV-ko eta 220 kV-ko goi tentsio-ko lineek Foru Komunitatean duten ingurumen-eraginari dagokionez Nafarroako Gobernuak darabilen politikari buruz (PES-4). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Linea elektrikoaren ingurumen-eraginak Estatuko Administrazioak ebaluatzen ditu edo Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, eragin horiek baimentzeko prozeduren barruan eta Ingurumen Eraginaren Ebaluazioaren legezko izapideekin.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2011ko otsailaren 17an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

